

*UPV/EHUko Euskararen Erabileraren  
Normalizaziorako II. Plangintza.*

# **Euskara Errektoreordetza**



# Aurkibidea

|  |     |
|--|-----|
| <b>0. Aurkezpena</b>   | 7   |
| <b>1. Euskararen Erabileraren Normalizazioaren Beharra Unibertsitatean</b> | 11  |
| <b>1.1. Euskararen Normalizazioan Unibertsitateak duen Betebeharra</b>     | 13  |
| <b>1.2. Lege Araudia</b>   | 14  |
| 1.2.1. Euskal Herriko Autonomia Erkidegoaren Oinarrizko Lege Araudia       | 14  |
| 1.2.2. Euskal Herriko Unibertsitateko Estatutuak                           | 14  |
| 1.2.3. Unibertsitatea Antolatzeari Buruzko Legea                           | 16  |
| <b>1.3. Euskarazko Ikasketen Eskaria</b>                                   | 17  |
| 1.3.1. Batxilergoaren Zenbakiak  | 18  |
| 1.3.2. Unibertsitatean sartzeko Hautaprobentzen Zenbakiak                  | 18  |
| 1.3.3. Unibertsitateko Lehen Mailako Matrikulen Zenbakiak                  | 19  |
| <b>2. Euskararen Egoera Euskal Herriko Unibertsitatean</b>                 | 21  |
| <b>2.1. Irakaskuntza</b>   | 23  |
| <b>2.2. Irakasleak</b>   | 24  |
| 2.2.1. Irakasle Euskaldunen Kopurua  | 24  |
| 2.2.2. Irakasle Euskaldunen Akademia Gradua                                | 24  |
| 2.2.3. Irakaslegai Euskaldunak   | 26  |
| <b>2.3. Testu Liburuak</b>   | 27  |
| <b>2.4. Ikerkuntza</b>   | 29  |
| 2.4.1. Ikerkuntza Taldekideen Arteko Hizkuntzaren Erabilera                | 29  |
| 2.4.2. Zientzia eta Jakintza Argitalpenak                                  | 29  |
| 2.4.3. Doktore Tesiak  | 30  |
| 2.4.4. Ikerkuntza Lanak Euskaraz Idaztearen Garrantzia                     | 31  |
| <b>2.5. Administrazioa eta Zerbitzuak</b>                                  | 32  |
| <b>3. Irakats Eskaintzari Dagozkion Helburuak</b>                          | 55  |
| <b>3.1. Unibertsitateak Eskaintzen dituen Ikasketetan</b>                  | 57  |
| 3.1.1. Helburuen Mailakaketa   | 57  |
| 3.1.2. Irizpideak  | 58  |
| 3.1.3. Ikasketa Guztietarako Helburuak                                     | 60  |
| I. Farmazia Fakultatea   | 61  |
| II. Filologia, Geografia eta Historia Fakultatea                           | 63  |
| III. Enpresa Ikasketetako Unibertsitate Eskola                             | 71  |
| IV. Magisterioko Unibertsitate Eskola. Gasteiz                             | 73  |
| V. Industria eta Topografia Ingeniaritza Teknikoko Unibertsitate Eskola    | 75  |
| VI. Gizarte Laneko Unibertsitate Eskola                                    | 79  |
| VII. Kimika Fakultatea   | 81  |
| VIII. Zuzenbide Fakultatea   | 83  |
| IX. Informatika Fakultatea   | 85  |
| X. Filosofia eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea                            | 87  |
| XI. Psikologia Fakultatea  | 93  |
| XII. Arkitekturako Goi Eskola Teknikoa                                     | 95  |
| XIII. Enpresa Ikasketetako Unibertsitate Eskola. Donostia                  | 97  |
| XIV. Erizaintzako Unibertsitate Eskola. Donostia                           | 99  |
| XV. Magisterioko Unibertsitate Eskola. Donostia                            | 101 |
| XVI. Industria Ingeniaritza Teknikoko Unibertsitate Eskola. Donostia       | 105 |
| XVII. Industria Ingeniaritza Teknikoko Unibertsitate Eskola. Eibar         | 107 |

|  |     |
|--|-----|
| XVIII. Zientzia Fakultatea   | 109 |
| XIX. Arte Ederretako Fakultatea  | 115 |
| XX. Ekonomia eta Enpresa Zientzien Fakultatea                          | 117 |
| XXI. Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatea                      | 121 |
| XXII. Medikuntza eta Odontologia Fakultatea                            | 127 |
| XXIII. Industria eta Telekomunikazio Ingeniarrien Goi Eskola Teknikoa  | 129 |
| XXIV. Enpresa Ikasketetako Unibertsitate Eskola. Bilbo                 | 131 |
| XXV. Erizaintzako Unibertsitate Eskola. Leioa                          | 133 |
| XXVI. Magisterioko Unibertsitate Eskola. Bilbo                         | 135 |
| XXVII. Lan Harremanetako Unibertsitate Eskola                          | 141 |
| XXVIII. Industria Ingeniaritza Teknikoko Unibertsitate Eskola. Bilbo   | 143 |
| XXIX. Meatze Ingeniaritza Teknikoko Unibertsitate Eskola               | 145 |
| XXX. Hiritar Itsasketaren Goi Eskola                                   | 147 |
| 3.1.4. Laburpen Orokorra   | 149 |
| 3.1.5. Aukera Askeko Kredituak   | 152 |
| 3.1.6. Ikasketen Antolakuntza  | 153 |
| 3.1.7. Hautazko Irakasgaien Eskaintza gehitzeko Mugak                  | 153 |
| 3.1.8. Ikasketen Amaiera Proiektuak eta Tesinak                        | 154 |
| 3.1.9. Hirugarren Zikloa eta Doktorego Programak                       | 154 |
| <b>3.2. Ikasketa Berrietan</b>   | 155 |
| <b>3.3. Irakaskuntza Esparru Berrietan</b>                             | 156 |
| <b>3.4. Irakasle Elebidunak</b>  | 157 |
| 3.4.1. Sortu Beharko diren Lanpostu Berrien Kopurua finkatzeko Bidea   | 157 |
| 3.4.2. Beharrak  | 158 |
| 3.4.3. Irakasleak lortzeko Bideak                                      | 158 |
| 3.4.4. Irakasleen Hizkuntza Birziklaketa                               | 158 |
| 3.4.5. Irakasleen Lan Baldintzak                                       | 159 |
| 3.4.6. Lanpostu Berrien Trataera                                       | 160 |
| 3.4.7. Arlo Defizitarioetarako Formazio Programa                       | 160 |
| 3.4.8. Laguntzaile Euskaldunen Programa                                | 160 |
| 3.4.9. Lankidetzaren Bekadunen Hizkuntza Soslaiak                      | 161 |
| <b>3.5. Euskara Institutuaren Zeregina</b>                             | 161 |
| <b>4. Testu Liburuaren Alorrari dagozkion Helburuak</b>                | 163 |
| <b>5. Ikerkuntzaren Alorrari dagozkion Helburuak</b>                   | 167 |
| 5.1. Ikerkuntza Taldekideen Arteko Euskararen Erabilera                | 169 |
| 5.2. Doktore Tesiak eta Zientzia eta Jakintza Argitalpenak             | 169 |
| <b>6. Administrazio eta Zerbitzuetako Alorrari dagozkion Helburuak</b> | 171 |
| 6.1. 86/1997 Dekretuaren Edukiaren Laburpena                           | 173 |
| 6.1.1. Sarrera   | 173 |
| 6.1.2. Hizkuntza Eskakizunak   | 174 |
| 6.1.3. Administrazio Atalak  | 174 |
| 6.1.4. Helburuak   | 175 |
| 6.1.5. Hizkuntza Normalizaziorako Planak                               | 175 |
| 6.1.6. Derrigortasun Daten Esleipena                                   | 176 |
| <b>6.2. Euskal Herriko Unibertsitateko Atalen Sailkapena</b>           | 177 |
| 6.2.1. Zerbitzu Orokorretan  | 177 |
| 6.2.2. Ikastetxeetan   | 177 |
| 6.2.3. Atal Elebidunak eta Euskarazko Atalak                           | 178 |

|   |     |
|---|-----|
| <b>6.3. Derrigortasun Datak</b>   | 178 |
| 6.3.1. Derrigortasun Datak Esleitzeko Irizpideak  | 178 |
| 6.3.2. Derrigortasun Daten Banapena   | 179 |
| 6.3.3. Derrigortasun Data Gainditua duten Lanpostua betetzen<br>duten Behin-behineko Funtzionarioek | 200 |
| 6.3.4. Lanpostuen Zerrendan ez dauden Langileak   | 201 |
| 6.3.5. Lan Poltsetan dauden Langileak   | 201 |
| <b>6.4. Administrazio eta Zerbitzuetako Langileen Hizkuntza Prestakuntza</b>                        | 202 |
| 6.4.1. Administrazio eta Zerbitzuetako Langileen Euskalduntzea                                      | 202 |
| 6.4.2. Administrazio eta Zerbitzuetako Langileen Etengabeko<br>Prestakuntza                         | 205 |
| <b>6.5. Baliabide Informatikoak</b>   | 205 |
| <b>6.6. Erabilera Planak</b>  | 205 |
| <b>6.7. Unibertsitatean Zerbitzua ematen duten Kanpo Enpresa edo<br/>    Erakundeen Trataera</b>    | 205 |
| <br>  |     |
| <b>7. Eremu Desberdinetarako Euskararen Erabilera Irizpideak</b>                                    | 209 |
| <b>7.1. Unibertsitatearen Irudia eta Argitalpen Ofizialak</b>                                       | 211 |
| 7.1.1. Irudia   | 211 |
| 7.1.2. Argitalpen Ofizialak   | 211 |
| <b>7.2. Barne Harremanetan</b>  | 211 |
| <b>7.3. Web Orria</b>   | 212 |
| 7.3.1. Eskainitako Informazio Orokorra  | 212 |
| 7.3.2. Liburutegiaren Katalogoa   | 212 |
| <br>  |     |
| <b>8. Plangintzaren Ezarpen Planak eta Ebaluazioa</b>   | 215 |
| 8.1. Plangintzaren Ezarpen Planak   | 217 |
| 8.2. Plangintzaren Ebaluazioa   | 218 |
| <br>  |     |
| <b>9. Plangintzaren Dirulaguntza</b>  | 221 |
| 9.1. Programa Kontratuaren Helburuak  | 223 |
| 9.2. Indarraldia  | 224 |
| 9.3. Beharrak   | 224 |
| 9.4. Egutegia   | 225 |







## *0. Aurkezpena*



Euskal Herriko Unibertsitateko Euskararen Normalizaziorako I Plangintza 1990etik dago indarrean. Beraz, 8 urte igaro dira II. Plangintza honen aurkezpena egin arte. Duela hilabete batzuk aurkeztu eta argitaratu den txosten batean eskaini ditugu I Plangintza haren ondorioz gaur dugun euskarazko ikasketen egoeraren deskribapena eta Plangintzaren betetze maila. Beraz, hau ez da I Plangintzaren nondik norakoak arakatzeko tokia, azterketa hori egin baitago jadanik. Hala eta guztiz, txosten horretan egin diren hausnarketa batzuek oso irizpide lagungarriak eskaini dizkigute II. Plangintza hau gauzatzeko unean. Izan ere, ondorengo orrietan aurkeztuko den Plangintza, lehenengoaren jarraipentzat har daiteke, bien arteko alde nabariak egon arren. Txosten honetan zehar desberdintasun horiek ikusteko aukera izango dugu zuzen-zuzenean edo zeharka.

Txosten honek zenbait atal ditu, aurkibidean ikus daitekeen moduan. Plangintza prestatzeko hautatu dugun prozedura, datozen lerroetan laburbilduko da. Lehenengo atal batean Unibertsitatean euskararen normalizazioa bultzatzeko dauden arrazoiak eztabaidatuko dira. Azken batean, arrazoi horiek irizpide ere badira edo irizpideak definitzeko baliagarri samar suertatuko zaizkigu. Geroago, oraingo egoeraren deskribapena laburbilduko da, horretarako lau alor bereiziz. Lau alor horien arteko banaketa mantendu egingo da datozen ataletan: a) Irakaskuntza edo irakats eskaintzarena. b) Testu liburuen. c) Ikerkuntzarena eta d) Administrazio eta zerbitzuetakoa.

Egoeraren analisi laburra egin ondoren, datozen urteetarako helburu eragingarriak aurkeztu eta proposatuko dira. Horretarako, lehenago egindako alorren banapenera itzuliko gara, helburu eragingarriak alor espezifikokoak baitira. Helburuak lortzeko aurrera eraman behar diren ekintzak eta hartu beharreko neurriak proposatuko dira. Bestalde, ezarpen planei buruzko argibideak emango dira eta bai plangintzaren ebaluazio prozedura azalduko ere.

Epe laburrerako helburuak finkatu baino lehen, behar beharrezkoa da Unibertsitatearen helburu estrategikoa ondo definitzea. Euskararen erabilerearen normalizazioaren bila gabiltzalarik, hizkuntza baten normalizazioa du helburu azken batean. Hitzak berak dioenez, hizkuntza normaltasun osoz erabili ahal izatean datza normalizazioa. Definizio hori, hala ere, subjektibotasun handikoa da, normaltasun berbak esangura desberdinak izan baititzake. Dokumentu honen helburuei dagokienez, beste modu batean defini dezakegu hizkuntzaren erabilera normalizatua. Definizio horren arabera, euskararen erabilera normalizatua egonez gero, euskaldunak erdaldunak bezain eroso sentituko lirateke Euskal Herriko Unibertsitatean, beti ere hizkuntzari dagokionean, jakina. Euskal gizartean bi hizkuntza ofizialen arteko egoera desorekatua dela eta, gaztelania erabiltzeko dugun erraztasunak eta ditugun aukerak erreferentzia izan behar behar dute erosotasuna aipatzen denean. Beraz, gaur Euskal Herriko Unibertsitatean gaztelania duen egoerara eta erabilera maila berberetara heltzea izango litzateke helburu estrategiko hori.

Aipaturiko egoera horretara heltzeko neurri mota desberdinak har daitezke, Unibertsitatearen esku daudenak: Neurri horien arauketa eta ordenamendua izango da plangintza honen edukinaren alderik garrantzizkoena. Neurri horiek, bestalde, ez dira nahiko izango helburu estrategiko hori bete ahal izateko. Azken batean, Unibertsitatearen inguruneak sekulako eragina du, batez ere hizkuntzaren erabileraren esparruan. Aipatua dugu dagoeneko ingurunearen eragina, hemen aurkeztuko den Plangintzaren eragile nagusietako bat. Berez, gizartearekiko elkarrekintzaren menpean egongo da euskararen erabileraren helburua bete ahal izatea. Hortaz, Unibertsitateak uharte bat izan behar ez duelako baieztapenak bi alde ditu: Batetik horrek ematen digu Unibertsitatean euskararen normalizatu nahiaren arrazoi nagusia eta, bestetik, prozesu hori egoki bideratzea, neurri handi batean, gizartearen beste alorretan gertatzen denaren menpe egongo da.

Behin helburu estrategikoa definituz gero, Plangintza honek epe laburrerako helburuak ezarri beharko ditu. Helburu horiek helburu nagusiranzko urrats modura ulertu behar dira. Horrek honakoa esan nahi du: Batetik, hemen definituko diren helburuak koherenteak izan behar dira helburu nagusiarekiko eta, bestetik, bere bideragarritasuna neurtua izan behar du eta arrakasta izateko nolabaiteko berma behar da. Hurrengo ataletan epe laburrerako helburu horiek edo helburu eragingarriak zehaztuko dira. Horretarako, lehenago definitu diren lau alorren sailkapena mantenduko da eta alor bakoitzari dagozkionak zehaztuko dira.

Hemen aurkezten den II. Plangintzaren helburuak beteko diren ala ez eta zein neurritan beteko diren, Unibertsitateetik kanpoko alorretatik etorriko diren ekonomia baliabideen menpean egongo da, zer esanik ez. Baina, era berean, oso garrantzitsu deritzegu Unibertsitate barruan egingo den ahalegin eta indarrari, bai euskaldunen aldetik eta baita euskaldunak ez direnen aldetik ere. Honen oinarria argia da. Gero eta argiago dago euskarazko irakaskuntza ezin dela hartu Unibertsitate barruko uhartetzat. Kontu honekiko egin behar den plangintza lana, erabat lotuta dago beste alor batzuetan egin behar diren plangintzekin. Honen adibide argia urtero ikusi ahal izaten dugu *Prozedura Bateratua* delakoari ekiten diogun bakoitzean.

Bestalde, begi bistakoa da Unibertsitateak dituen betebeharrak guztiontzat direla. Horrela, kalitatezko irakaskuntza eta ikerkuntza, kudeaketa eraginkorra eta transparentea, gure lanaren gizarterako proiektzioa eta gure jardueren beste balioak, Unibertsitateko kideon ardura eta helburu dira. Modu berean, euskararen erabileraren zabalkuntzak eta normalizazioak, guztion ardura eta helburua izan behar dute eta hori, hurrengo atalean ikusi ahal izango dugun moduan, hiru arrazoi nagusirengatik. Batetik, Unibertsitatearen goreneko araudiak diren Estatutuek horrelaxe agintzen digutelako; bestetik, Unibertsitatea txertatuta dagoen gizartearen atala izanik, euskararen erabileraren normalizazioa gure erantzunkizun zuzena delako; azkenik, euskarazko irakaskuntzaren eskaria handia delako.

Guztion ardura izanik, euskaldunoi dagokigu alderik garrantzizkoena. Euskaldunon azpian dago, neurri handi batean, txosten honetan finkatuko diren helburuak betetzea.



# *1. Euskararen Erabileraren Normalizazioaren Beharra Unibertsitatean*





## ***1.1. Euskararen Normalizazioan Unibertsitateak duen Betebeharra.***

Hizkuntzalaritzaren inguruko jakintza esparruetan, hizkuntzaren normatibizazioa eta normalizazioa direlako adigaiak bereizi ohi dira eskuarki. Lehenengoa hizkuntzaren lexiko eta morfosintaxiaren batzeari dagokiolarik, bigarrenak hizkuntzaren erabilera gizarte esparru eta hizkuntza maila guztietara eraman, hedatu eta finkatzea dakar. Izan ere, Euskal Herriko Unibertsitateak ez du bere betekizun berezien artean euskara batzeko arau ageriak ematearena. Beraz, Plangintza honen helburuei dagokienez, bigarren adigaia da aztertu eta landu beharrekoa.

Lehenago esan den moduan, Unibertsitateak berebiziko garrantzia du euskararen normalizazioan. Garrantzi hori, funtsean, bikoitza da, beti ere hizkuntza jakin batek izan dezakeen edo izan behar duen estatusaz ari garelarik: alde batetik, txertaturik dagoen gizartearen islada izan behar du eta, bestetik, gizarte horren gorenko kultur erreferentzia bereganatu behar du.

Euskal Herriko Unibertsitateak, euskal gizartearen osagaietako bat izanik, ez du gainontzeko osagai guztietatik bakandua egon behar. Gainontzeko esparru guztietan euskararen erabileraren zabalpenaren eta normalizazioaren alde egin den apustua, Unibertsitateak ere bere egin behar du. Horixe zor dio Unibertsitateak gizarteari, are gehiago hezkuntza eta ikerkuntza erakunde hori publikoa delarik. Azken batean, euskal gizarteak babestu eta garatu du Euskal Herriko Unibertsitatea.

Gune honetara helduta, aipatu beharrekoa da oinarrizko maila eta maila ertaineko irakaskuntzan ikasketa guztiak euskaraz eskaini ahal izateko egin den ahalegina. Ahalegin horri esker, hezkuntza eremuko euskara normalizazio egoerara hurbildu da. Unibertsitatea eremu horren alde garaia da zalantzarik gabe eta ideia horri eutsi behar zaio plangintza honetan, euskararen erabilera hezkuntzaren azken eta gorenko atalean normalizatzeko asmoz.

Ikusia dugu hortaz Euskal Herriko Unibertsitatea euskal gizartearen ataletako bat dela eta, areago, hezkuntza eremuaren gorenko maila dela ere. Gauzak horrela, garden-gardena dugu unibertsitate mailako euskarak hizkuntza orokorraren corpusean izan dezakeen eragin onuragarri eta aberasgarria. Gainera, unibertsitate mailan euskararen erabilera normalak (normalizatuak) prestigioa ematen dio hizkuntzari berari eta ospe hori hizkuntzaren ezaugarri jakin batzuen ondorioa izango da. Gorenko pentsamendua adierazteko tresna duin, txukun eta egokiaren ezaugarriak bereganatu behar dituelarik, hizkera landuaren eredu izatera heltzera lortu behar du.



## **1.2. Lege Araudia**

### **1.2.1. Euskal Herriko Autonomia Erkidegoaren Oinarrizko Lege Araudia.**

Unibertsitatean Hizkuntza Plangintza eratzean, guri dagokigun eremuan zuzen sartu baino lehen, aintzat hartu behar da hizkuntzeekiko neurriak orokorrean ezarritako lege izaeraren arabera erabat baldintzaturik daudela.

Gurean, Autonomia Estatutuak euskara eta gaztelania hartu ditu hizkuntza ofizial gisa. Hizkuntza ofizial bien egoerak erabat desberdinak dira eta horrek dakartzan ondorioak, bereziki, euskararen inguruan sortzen direlarik, lege arautze oso bat sortu da. Aipatutako helburua betetzeko sortu zen 10/1982ko Legea, azaroaren 24koa, Oinarrizko Euskararen erabilera arautzen duena, non ofizialtzat hartzearen ondorioak zehazten eta bilakatzen diren. Oinarrizko Lege honek ondorio ugariak ekarri ditu, baina guk, bereziki, hari edo hildo bat dugu interes gune: administrazio egitura egokitzeko sortu diren araudiak. Horietan zehaztu da guri dagokigun eremuan eragin zuzena eta sakona duen administrazioko langileen hizkuntza eskakizunen arautzea, alegia. Arautze honetan zehaztutakoaren arabera egituratu behar dugu euskara hizkuntza ofizialtzat hartzeak sortzen dituen administrazio egituraren egokitze prozesua. Iraganeko araudi funtsezkoenak honako hauek izan dira: 250/1986ko Dekretua, azaroaren 25ekoa; 224/1989ko Dekretua, urriaren 17koa; 264/1990ekoa, urriaren 9koa; 238/1993ko Dekretua, abuztuaren 3koa; azken hau aldatzen duen 89/1994ko Dekretua, otsailaren 15ekoa; 517/1995eko Dekretua, abenduaren 19koa. Azkenik, prozesua egun arautzen duena, 86/1997ko Dekretua, otsailaren 15ekoa da.

### **1.2.2. Euskal Herriko Unibertsitateko Estatutuak.**

Euskara ofizialtzat hartu izanak ekarri dituen ondorioak zehazki jaso dira Unibertsitateko Estatutuetan. Bide horretan barrena, (oinarri gisa euskara gaztelaniarekin batera ofizialtzat hartu delarik), Unibertsitateak bere jardura eremuaren barnean hizkuntza ofizial bien erabilera normalizatzearren eta bermatzearren betekizunak ditu.

Hizkuntza bat ofizialtzat hartzeak ondorio zuzenak dakartzalarik, gizabanakoen eskubideak sortzen ditu, hain zuzen ere. Gure Unibertsitateko Estatutuak oso argibide zehatzak eman dituzte 243. artikuluan jaso diren eta adierazpen horietatik sortu diren eskubideei buruz. Alde batetik, unibertsitate erkidegoko edozeinek edozein hizkuntza ofizial erabiltzeko duen eskubidea dago, bai erakundearen atalekiko harremanetan sartzen denean, bai horietan parte hartzen duenean ere. Baina hizkuntza eskubideak ñadministrazioi harremanak bideratzean ez ezik, Unibertsitateak propio dituen eremuetan ere bideratzen dira;

hots, irakaskuntzan eta ikerkuntzan. Hala, irakaskuntza edozein hizkuntza ofizialez jasotzeko eta eskaintzeko eskubideak edo lanak, azterketak eta edozein frogara berean egiteko eta baita ikerlanak aurrera eramateko ere.

Unibertsitateko Estatutuetan, beraz, unibertsitate erkidegoaren gizabanako bakoitzak eremu desberdinetan dituen hizkuntza eskubideak onartzen dira. Baina erraz kontura gaitezkeenez, bertan aipaturiko eskubideak -edo horietako asko, bederen-, berez eta egunetik egunera, ezin berma daitezke eta guztiak ez dira izaera berekoak. Beraz, betegarri eta bermatuak izateko, aldezturik, mota askotako neurriak hartu behar dira eta baliabideak ezarri ere.

Unibertsitateko Estatutuak honetaz jabetu dira. Horregatik zehaztu dute -244. artikuluan, hain zuzen ere-, irakaskuntzan zein ikerketan edota unibertsitate zerbitzuetan "*euskara pausoka normalduz*" joan behar dela.

Unibertsitateak egokitze prozesu bat bizi behar du, beraz, euskara, gaztelaniarekin batera, mota guztietako unibertsitate jardueretan -eta horren erkidegoaren edozein gizabanakok eskatutakoaren neurrian-, erabilgarri bihurtzeko eta horren inguruko eskubideak, edozein egoeratan, bermatu ahal izateko. Estatutuetan bertan zehaztu denez, helburuak betetzeko bete behar diren neurri egokiak zehaztuko dituen plangintza bat gauzatu behar da egokitze prozesu hori ahalbidetzeko.

Unibertsitatean, eta arazo honi dagokionez behintzat, bi mota nagusiko eremuak bereiz ditzakegu, administrazioarena eta akademia alorrarena, hain zuzen ere. Agerian dago aipatutako eremuetan hizkuntza eskubideak bermatzeko hartu behar diren neurriak eta erabili behar diren baliabideak izaera arras desberdinekoak direla, batzuk besteen aldean. Ez baitira mota bereko edozein hizkuntza ofizial edozein unibertsitate atalen barruan (edo horren aurrean) erabiltzeko eskubidea, kasu, eta edozein hizkuntza ofizialez irakaskuntza jasotzeko eskubidea. Batak eta besteak, betetzat edo bermatutzat hartu ahal izateko, administrazio egitura edo antolaketa barnean neurriak ez ezik, mota desberdineko baliabideak ere eskatzen dituzte, askotan -irakaskuntzari dagokionez bereziki- Unibertsitatearen esku ez daudenak edo gizarteak Unibertsitatearen eskura ipintzen ez dituenak.

Plangintza da, beraz, aipatu eremu bakoitzaren barruan denbora epe jakin batean zehaztutako xedeak edo helburuak lortzeko hartu behar diren neurriak eta erabili behar diren baliabideak zehaztu behar dituenak.

Unibertsitateak, dagoeneko, aipaturiko bidea jorratua du eta Euskararen Erabileraren Normalizaziorako I Plangintzaren ondorioz jasotako emaitzak aztertzean atera daitezkeen ondorioek arras garbi adierazi digute eremu batean eta bestean hartu behar diren neurriak eta ezarri behar diren baliabideak, askotan, ezin har daitezkeela pixkanaka ez bada. Horren zergatiak erraz aurkituko ditugu gure aurrean: Betetzeko helburuak ez daude behar bezain mugatuak eta ondo zehaztuak, neurruak eta jatorrizko egoerarekiko arakatuak; diru baliabideak

mugatuak dira; azkenik, zenbait kasutan ez dago lanpostuak betetzeko gauza den hautagai nahikorik.

Aintzat hartu behar dugu egoera hau ez dela Unibertsitateak (areago gure Unibertsitateak) soilik pairatu duen egoera berezia. Izan ere, egoera hori arrunta da hizkuntza eskubideen eremuaren lege antolamendu guztietan. Bereziki, gurean bezala, oinarritzko bi ezaugarri batera gertatzen direnean, bata Unibertsitateari - Unibertsitatea den heinean- dagokiona eta bestea, aldiz, Euskal Herriaren hizkuntzarekiko gizarte egoerari dagokiona. Egia esanda, argi dago Unibertsitatearen akademia jarduera betetzeko jende bereziki jantzia behar dela, euskaraz betetzen den irakaskuntzaren kalitate maila apalegia izan ez dadin. Era berean, ezin ahaztuzkoa dugu, bestalde, euskal herriaren urritasuna, hots, euskara erabiltzen duen jendearen urritasuna. Ezaugarri hauek biak batera gertatzen direnean, gure kasuan bezala, bata eta bestearen eragina areagotu egiten da eta edozein plangintzari mugak ezartzen zaizkio, edo hobe esanda, plangintzaren bilakaeraren lastertasuna baldintzatzen da; eta hau aintzat hartzekoa da ezarririkoa xedeak eta helburuak betetzea nahi dugun edozein hizkuntza plangintza zehaztean. Borondate hutsa ez baita aski aipatu helburuak lortzeko; edo Mitxelenak esana duen bezala "*gogo bizia eta nahi sutsua, zein ere goragarriak diren, ez baitira aski izaten*"; nahiz eta Estatutuek, noizbait, aurkako iritzikoak direla diruditen.

Azkenik, irakaskuntza eta ikerkuntzari dagokionez bederen, Unibertsitatean hizkuntza plangintza ezartzean ez da baztertzekoa eginkizun horiek ondo beteak izateko eskatzen duten erritmo berezia ere, ezin baita Sail batean, bapatean -edo "uholdeka"-, irakasle eta ikertzaile ugari sartu eta horretan betetzen ari den lanaren bilakaeran desoreka arriskugarriak sortu.

Beraz, aurreko guztia aintzat hartuz eratu behar da bigarren hizkuntza plangintza. Xedeak eta helburuak zehaztu behar dira, baina baldintza guztiak ondo neurtu ondoren horiek betegarriak izan daitezten. Beti ere unibertsitate erkidegoaren gizabanakok dituen hizkuntza eskubideak, ahalik eta beteena eta ahalik eta egokien berma daitezten.

### **1.2.3. Unibertsitatea Antolatzeari buruzko Legea.**

1998ko uztailaren 16ko E.H.A.A.n argitaratu zen 19/1998 Legea, ekainaren 29koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Unibertsitatea Antolatzekoa. Lege horrek hainbat kontu garrantzitsu arautu ditu hizkuntza normalizazioari dagokionez. Beraz, Legeak dioena aintzat hartu behar izango da Plangintza hau prestatzerakoan. Horregatik, atal honetan, hitzez hitz jasoko da Legean adierazitakoa.

Bere bosgarren artikulua honelaxe dio:

1.- Unibertsitate publikoak behar diren neurriak hartuko ditu unibertsitate-irakaskuntzan, zientzia-ikerketan eta administrazio- eta zerbitzu-jardueran euskararen erabilera berdintasun eta kalitatezko baldintzetan normalizatzeko, betiere Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatean hizkuntza-arraioengatik soilik zatiketarik ez sortzeko irizpidea errespetatuz.

2.- Unibertsitate publikoak euskalduntze-programak egingo ditu Unibertsitate-Planean jasoko diren titulazioetarako. Programa horiek programa-kontratuen kontura finantzatuko dira.

3.- Euskalduntze-programek honako irizpide hauekin bat etorri beharko dute:

a) Euskarazko unibertsitate-okasketen eskaintza ikasleen eskaerari egokitu behar zaio.

b) Gutxienezko ikasle-kopuru bat finkatu behar da euskarazko ikasketak ematen hasteko edo aurretik daudenei eusteko. Era berean, euskaldundu beharreko titulazio eta jakintzagaiak zehaztuko dira, bai eta horien derrigorrezko edo aukerazko ardaztasuna ere.

c) Ondo prestatutako irakasleak egoteko bideak jarri eta alde horretatik izan daitezkeen beharrak aurreikusi beharko dira.

4.- Unibertsitate publikoaren administrazio eta zerbitzuetako langileei Euskeraren Erabilpena Arauzkotzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legean administrazio publikoen zerbitzuetako langileentzat zehaztutakoa ezarriko zaie.

### **1.3. Euskarazko Ikasketen Eskaria.**

Aurreko atalean esan den moduan, Euskal Autonomia Erkidegoko hezkuntza sisteman sekulako ahalegina egin da euskararen erabilera bultzatzeko eta normalizatzeko. Unibertsitateari dagokionez, ahalegin horren ondorioak garrantzi handikoak dira. Batetik, Unibertsitatea sistema horretako partaidea izanik, kontraesan handia gertatuko litzateke beste mailetan egindako ahalegina unibertsitate mailan jarraikortasunik gabe gertatuko balitz.

Beste alde batetik, gero ete ikasle gehiagok bukatu dituzte beren lehen eta bigarren mailetako ikasketak euskaraz. Horren ondorioz, euskarazko ikasketen eskaria modu esangarrian igo da azken urteotan eta gertu ditugun datuek, igoera hori mantendu egingo dela aurreikusten dute. Argi dago euskarazko ikasketen eskaria gora doala baina horrekin batera, garrantzi handiko beste gertaera bat antzeman daiteke: gero eta ikasle gutxiago etortzen dira Unibertsitatara. Gaur zaila da aurreikuspen zehatzik egitea, baina gertu ditugun datuetatik ondoriozta daitekeena hurrengo da: Euskaraz ikasteko prest egon daitezkeen ikasleen kopurua gehitu edo mantendu egingo da datozen urteotan baina horrekin batera, gaztelaniaz ikasi nahi izango duten ikasleen kopurua nabariki beheratuko da.

Beste atal batean aztertuko den moduan, horrek erabat baldintzatuko du etorkizunean egin beharko den irakasleen kudeaketa.

Baliagarria izan daitekeelakoan, hezkuntza sistemaren maila desberdinetan azken urteotan hizkuntza eredu desberdinak aukeratu dituzten ikasleen kopuruen aldaketak aurkeztuko dira ondorengo tauletan.

### 1.3.1. Batxilergoaren Zenbakiak.

Ondoren, azken 10 ikasturteotan batxilergoa egin duten ikasleek aukeratu dituzten hizkuntza ereduaren bilakaera aurkeztuko da. Datu homogeneous erabiltzeko asmoz, batxilergo berriari dagozkion datuak bigarren taula batean sartu dira. Hori da, hain zuzen ere, lehen taulan ikus daitekeen azken ikasturteko beherapen orokorraren zergaitia. 89/90 ikasturtean iritsi zen kopuru altuenera (lehenagoko datuak aurkeztu ez arren, baxuagoak ziren) eta hortik aurrera, etengabeko beherapena gertatu da. D ereduaren, igo edo mantendu egin dira ikasleen kopuruak eta behaturiko joerak mantendu egingo direla auresateko moduan gaude.

**BBB + UBI:**

| Eredua      | Ikasturtea |       |       |       |       |       |       |       |       |       |
|-------------|------------|-------|-------|-------|-------|-------|-------|-------|-------|-------|
|             | 88/89      | 89/90 | 90/91 | 91/92 | 92/93 | 93/94 | 94/95 | 95/96 | 96/97 | 97/98 |
| A + B + X   | 70943      | 69764 | 67513 | 64817 | 62505 | 60716 | 55222 | 51038 | 46810 | 24188 |
| D (kopurua) | 12732      | 14414 | 15709 | 17172 | 18624 | 19345 | 19901 | 19646 | 20348 | 10191 |
| Orotara     | 83765      | 84178 | 83222 | 81989 | 81129 | 80061 | 75123 | 70684 | 67158 | 34379 |
| D (%)       | 15,2       | 17,1  | 18,9  | 20,9  | 22,9  | 24,2  | 26,5  | 27,8  | 30,3  | 29,6  |

**HSAOL Batxilergoa:**

| Eredua      | Ikasturtea |       |       |       |       |       |       |       |       |       |
|-------------|------------|-------|-------|-------|-------|-------|-------|-------|-------|-------|
|             | 88/89      | 89/90 | 90/91 | 91/92 | 92/93 | 93/94 | 94/95 | 95/96 | 96/97 | 97/98 |
| A + B + X   | -          | -     | -     | -     | -     | -     | 2962  | 4300  | 4552  | 18183 |
| D (kopurua) | -          | -     | -     | -     | -     | -     | 1454  | 2783  | 3498  | 9223  |
| Orotara     | -          | -     | -     | -     | -     | -     | 4416  | 7083  | 8050  | 27405 |
| D (%)       | -          | -     | -     | -     | -     | -     | 32,9  | 39,3  | 43,4  | 34,0  |

### 1.3.2. Unibertsitatean sartzeko Hautaprobak Zenbakiak.

Unibertsitatean sartzeko hautaprobak azken urteotan euskaraz egin duten ikasleen kopurua eta portzentaia ondorengo taulan daude:

| Aukeratutako hizkuntza                   | 1994  | 1995  | 1996  | 1997  | 1998  |
|--|-------|-------|-------|-------|-------|
| Hautaprobak orotara (ikasle kopurua)     | 13339 | 15400 | 15174 | 14674 | 14508 |
| Hautaprobak gaztelaniaz (ikasle kopurua) | 9980  | 11159 | 10738 | 10093 | 9687  |
| Hautaprobak euskaraz (ikasle kopurua)    | 3359  | 4241  | 4436  | 4581  | 4821  |
| Hautaprobak euskaraz (portzentaia)       | 25    | 27    | 29    | 31    | 33    |

Taula horretan argi ikus daitekeenez, hautaprobak euskaraz egin dituzten ikasleen kopurua etengabeki hazi da azken urte hauetan, hazkuntza hori gero eta apalagoa bada ere. Hautaprobak euskaraz egin duten ikasleen portzentaia urteko % 2ko tasan igotzen ari da eten gabe, batxilergoa euskaraz egin dutenen



portzentaietan ikusi denaren antzera. Azpimarratzekoa da, dena den, hautapropa egiteko euskara aukeratzen duten ikasleen portzentaia batxilergoa euskaraz egiten dutenena baino altuagoa suertatzen dela.

### 1.3.3. Unibertsitateko Lehen Mailako Matrikularen Zenbakiak.

Unibertsitateko ikasketen lehen mailatan gaztelaniaz eta euskaraz ikasten duten ikasleen kopuruak eta portzentaia hurrengo taulan ageri dira:

|  | Ikasturtea |         |         |         |         |
|--|------------|---------|---------|---------|---------|
|  | 1993/94    | 1994/95 | 1995/96 | 1996/97 | 1997/98 |
| <b>Diplomatura edo Ingen. Teknikotan</b>     |            |         |         |         |         |
| Orotarako ikasle kopurua                     | 7347       | 7556    | 7263    | 7708    | 7532    |
| Gaztelaniaz ikasten dutenen kopurua          | 5984       | 6133    | 5765    | 6085    | 5910    |
| Euskaraz ikasten dutenen kopurua             | 1363       | 1423    | 1498    | 1623    | 1622    |
| Euskaraz ikasten dutenen portzentaia         | 18,6       | 18,8    | 20,6    | 21,1    | 21,5    |
| <b>Lizentziatura edo Goi Ingeniaritzatan</b> |            |         |         |         |         |
| Orotarako ikasle kopurua                     | 9607       | 10181   | 10566   | 9770    | 8968    |
| Gaztelaniaz ikasten dutenen kopurua          | 8043       | 8407    | 8566    | 7798    | 7046    |
| Euskaraz ikasten dutenen kopurua             | 1564       | 1774    | 2000    | 1972    | 1922    |
| Euskaraz ikasten dutenen portzentaia         | 16,3       | 17,4    | 18,9    | 20,2    | 21,4    |
| <b>Ikasketa guztietan</b>                    |            |         |         |         |         |
| Orotarako ikasle kopurua                     | 16954      | 17737   | 17829   | 17478   | 16500   |
| Gaztelaniaz ikasten dutenen kopurua          | 14027      | 14540   | 14331   | 13883   | 12956   |
| Euskaraz ikasten dutenen kopurua             | 2927       | 3197    | 3498    | 3595    | 3544    |
| Euskaraz ikasten dutenen portzentaia         | 17,3       | 18,0    | 19,6    | 20,6    | 21,5    |

Aurreko taula honetan dauden datuak lehen mailako taldeetan matrikulatuta dauden ikasleen kopuru ertainei dagozkie. Beraz, sartu berriak diren ikasleak eta errepikatzen dutenak batera zenbatu dira. Ikasleen euskaldun eta erdaldunen arteko proportzioa ez da ikasturte horretan hautapropa egin dutenena soilik, zeren eta hizkuntza banapen desberdina zuten aurreko promozioetako ikasleekin nahastuta baitaude. Hala ere oso deigarria da hautapropa euskaraz egin duten ikasleen portzentaia eta lehen mailatan euskaraz ikasi duten ikasleen portzentaia arteko aldea. Datu horien arabera, hautapropa euskaraz egin duten 1500 ikasle inguruk gaztelania aukeratu dute goi mailako ikasketetarako. Gertaera horren eragileak aztertuta daude jada eta ez dira hemen eztabaidatuko. Edozein kasutan ere, berriro ikusi dugu gaztelaniaz ikasten duten ikasleen kopurua nabarmenki beheratzen ari dela.





## *2. Euskararen Egoera Euskal Herriko Unibertsitatean*



## 2.1. Irakaskuntza.

Gaurko euskarazko eskaintzaren azterketa egina dago joan den ikasturtean Euskara Errektoreordetzak argitaratu duen txosten batean. Txosten horrek *ñEHUko euskarazko irakats eskaintzaren egoera* izenburua du eta dokumentu honekin batera banatuko da eranskin gisa. Bertan, azterketa orokorra egiteaz gain, I Normalizazio Plangintzaren helburuen betetze maila ere aintzat hartu da. Beraz, hor azterturikoa ez da miatuko hemen berriro. Bestalde, titulazio bakoitzerako helburuak aurkeztuko diren atalean, joan den ikasturtean ikasketa bakoitzean eginiko euskarazko eskaintzaren berri zehatza emango dugu. Hala ere, zenbait datu interesgarri laburbil daiteke, hemen aurkeztuko diren moduan orain arte inon argitaratu ez baitira eta gainbegirada orokorra egiteko aukera emango baitigu.

Beste kontuetarako egingo den era berean, orain aurkeztuko diren datuak, zientzia eta jakintza arlo nagusien arabera sailkatuko dira. Laburpen honetarako, ikasketa plangintza berria ez duten ikasketak ez dira sartu. Hori dela eta, txosten honetan bildu ditugun kreditu kopuruei, Natur eta Saio Zientzien arloan beste 1000 kreditu gehiagoren baliokide diren euskarazko eskola orduak gaineratu beharko litzaizkieke (Biologia, Kimika, Geologia eta Fisikako Lizentziaturatan), Gizarte Zientzien kasuan, beste 350 kreditu gehiago (Zuzenbidean) eta Ikasketa Teknikoetan, beste 120 kreditu (Arkitekturatan). Zenbaki absolututetan, beraz, benetako eskaintza zabalagoa da hemen aurkeztuko dena baino, euskaraz egiten den eskaintzari dagokion proportzioa oso antzekoa bada are.

| Arlo Nagusia                              | Giza Jakintzak | Gizarte Zientziak | Osasun Zientziak | Natur eta Saio Zient. | Ikasketa Teknolog. | Orotara |
|---|----------------|-------------------|------------------|-----------------------|--------------------|---------|
| Halabeharrezko kredituak (orotara)        | 4396           | 3082              | 1653             | 470,5                 | 4541               | 14142,5 |
| Halabeharrezko kredituak (euskaraz)       | 3344,5         | 2123,5            | 421,5            | 145,5                 | 1366,5             | 7401,5  |
| %   | 76             | 69                | 25               | 31                    | 30                 | 52      |
| Bete behar diren hautazko kr. (orotara)   | 1141           | 764,5             | 133,5            | 139,5                 | 839,5              | 3132    |
| Euskaraz eskaintzen diren hautazko kred.  | 1499           | 687               | 79,5             | 33                    | 216                | 2514,5  |
| Euskaraz eskaintzen diren kred. (orotara) | 4843,5         | 2810,5            | 501              | 178,5                 | 1582,5             | 9916    |

Taula honetan eskaini diren datuek iruzkin laburra behar dute. Batetik, halabeharrezko irakasgaien kredituetarako eskaintzaren balio absolutuak emateaz gain, euskaraz eskaintzen denaren proportzioa ere aurkeztu da. Hori ez da horrela

egin hautazko irakasgaien kasuan. Hauetan, taulan dagoena ez da Unibertsitateak duen eskaintza osoa, ikasleek ikasketak amaitzeko bete behar dituzten kredituak baizik. Beraz, ez luke zentzurik izango euskaraz ematen denaren proportzioa emateak, bi balio horiek (ikasleek bete behar dutena eta euskaraz eskaintzen dena) esangura desberdinak baitituzte. Izan ere, ikasketa gutxi batzuetan euskaraz eskaintzen diren hautazko kredituen kopurua, ikasleek ikasketak amaitzeko bete behar dutena baino gehiago da. Ikasketa gehienetan, berriz, ez da hautazko krediturik eskaintzen euskaraz, Euskara Teknikoari dagozkionak izan ezik.

Taularen datuak adierazgarri samarrak dira eta ez dute azalpenik behar. Lehen esan den moduan, haien azterketa zehatza Euskara Errektoreordetzak argitaratutako txostenean aurki daiteke.

## 2.2. Irakasleak.

### 2.2.1. Irakasle Euskaldunen Kopurua.

Euskal Herriko Unibertsitateko irakasle lanpostuen zerrendan, 764 lanpostuk dute hizkuntza eskakizuna, baina irakasle euskaldunen kopurua altuagoa da, zeren irakasle euskaldun batzuek betetzen duten lanpostua elebiduna ez baita.

Azken sei ikasturteotan zehar irakasle elebidunen kopuruan gertatutako bilakaera hau izan da:

| Ikasturtea          | 92/93 | 93/94 | 94/95 | 95/96 | 96/97 | 97/98 |
|---------------------|-------|-------|-------|-------|-------|-------|
| Irakasle elebidunak | 481   | 586   | 620   | 686   | 726   | 764   |

Hurrengo taulan, lanpostu elebidunen banapena aurkeztuko da arduraldia eta kategoriaren arabera:

| Lanpostu mota                              | Arduraldia |           |          |           | Osoa       | Orotar<br>a |
|--|------------|-----------|----------|-----------|------------|-------------|
|  | 3 ordu     | 4 ordu    | 5 ordu   | 6 ordu    |            |             |
| Unibertsitate Eskolako Irakasle Lagunak    | 8          | 3         | 1        | 12        | 64         | 88          |
| Unibertsitateko Irakasle Lagunak           | 11         | 10        | -        | 30        | 215        | 266         |
| Unibertsitate Eskolako Irakasle Titularrak | -          | -         | -        | -         | 194        | 194         |
| Unibertsitateko Irakasle Titularrak        | -          | -         | -        | 4         | 180        | 184         |
| Unibertsitate Eskolako Katedradunak        | -          | -         | -        | -         | 9          | 9           |
| Unibertsitateko Katedradunak               | -          | -         | -        | -         | 23         | 23          |
| <b>EHU guztira</b>                         | <b>19</b>  | <b>13</b> | <b>1</b> | <b>46</b> | <b>685</b> | <b>764</b>  |

## 2.2.2. Irakasle Euskaldunen Akademia Gradua.

Interesgarria izan daitekeelakoan, ondorengo tauletan irakasle euskaldunen maila akademikoari buruzko datuak aurkeztuko dira. Izan ere, aurreko tauletatik ondorio partzialak atera daitezke ikuspegi honi dagokionez. Hala eta guztiz, osagarria izan daitekeen doktore eta ez doktoreen arteko proportzioen azterketak laguntza eman diezaguke egoera ondo ulertzeko unean. Nahiz datuak 1996/97 ikasturteari dagozkion, ondorioak estrapolagarriak dira. Doktore titulua izateak Eskola eta Fakultateetan esangura desberdina duenez, bereizkuntza hori mantendu da tauletan.

### Fakultateko irakasleak:

|                | Doktoreak | Ez doktoreak | Orotara |
|----------------|-----------|--------------|---------|
| Funtzionarioak | 207       | 35           | 242     |
| Kontratatuak   | 71        | 185          | 256     |
| Orotara        | 278       | 220          | 498     |

### Eskolako irakasleak:

|                | Doktoreak | Ez doktoreak | Orotara |
|----------------|-----------|--------------|---------|
| Funtzionarioak | 28        | 128          | 156     |
| Kontratatuak   | 3         | 69           | 72      |
| Orotara        | 31        | 197          | 228     |

### Guztira:

|                | Doktoreak | Ez doktoreak | Orotara |
|----------------|-----------|--------------|---------|
| Funtzionarioak | 235       | 163          | 398     |
| Kontratatuak   | 74        | 254          | 328     |
| Orotara        | 309       | 417          | 726     |

Irakasle guztiak kontuan hartuta, % 43ak doktore titulua lortua du, baina Fakultatekoei begira, portzentaia % 56ra igotzen da. Portzentaia horiek, hala ere, txikiak dira, batez ere Fakultateko irakasleei dagokienez. Nahiz eta irakasle guztiei buruzko daturik gertu ez izan, irakasle erdaldunei dagozkien balioak garaiagoak dira seguruenik. Horren eragile nagusia irakasle euskaldunen adin egitura da, irakasle erdaldunen adin ertaina euskaldunena baino altuagoa baita.

Aztertzen ari garen ikuspegi hau dela eta, oso datu adierazgarria da honako hau: 1992/1993 ikasturtean irakasle euskaldunen doktoreen portzentaia % 30a zen. Kontuan hartzen badugu lau ikasturte horien artean 481 irakasle elebidunetik 726ra iritsi dela, 96/97 ikasturtean 165 irakasle euskaldun doktore gehiago dago eta 80 irakasle gehiago, doktore ez direnen artean. Horren zergaitia, gure aburuz, bitan banan liteke: Batetik, gero eta irakaslegai gaituagoak betetzen ari dira sortzen diren lanpostu elebidunak eta bestetik, 92/93 doktore ez ziren irakasle askok beren doktore gradua lortu dute. Seguraski, bi kontu horiek izan dira eragile nagusiak.



Akademia kualifikazioan adinak duen garrantzia agerian jartzeko, hona hemen beste datu hauek:

Fakultate eta Goi Eskoletako irakasle euskaldunen adin banapena eta akademia gradua (parentesien artean dauden balioak Unibertsitate Eskolako Titularren kopuruei dagozkie):

| Jaiotze urtea    | Ez doktoreak | Doktoreak | Guztira | Doktoreen % |
|------------------|--------------|-----------|---------|-------------|
| 1930 baino lehen | 0            | 1         | 1       | 100         |
| 1930-1934        | 0            | 1         | 1       | 100         |
| 1935-1939        | 0            | 4         | 4       | 100         |
| 1940-1944        | 3            | 13        | 16      | 81          |
| 1945-1949        | 4            | 24        | 28      | 86          |
| 1950-1954        | 12 (1)       | 37        | 49      | 77          |
| 1955-1959        | 36 (16)      | 59        | 95      | 62          |
| 1960-1964        | 52 (10)      | 94        | 146     | 64          |
| 1965-1969        | 99 (9)       | 43        | 142     | 30          |
| 1970-1974        | 16           | 0         | 16      | 0           |

Eskoletako irakasle euskaldunen adin banapena eta akademia gradua:

| Jaiotze urtea    | Ez doktoreak | Doktoreak | Guztira | Doktoreen % |
|------------------|--------------|-----------|---------|-------------|
| 1930 baino lehen | 0            | 0         | 0       | -           |
| 1930-1934        | 1            | 3         | 4       | 75          |
| 1935-1939        | 1            | 1         | 2       | 50          |
| 1940-1944        | 1            | 0         | 1       | 0           |
| 1945-1949        | 8            | 3         | 11      | 27          |
| 1950-1954        | 30           | 4         | 34      | 13          |
| 1955-1959        | 63           | 7         | 70      | 10          |
| 1960-1964        | 30           | 8         | 38      | 21          |
| 1965-1969        | 47           | 5         | 52      | 10          |
| 1970-1974        | 16           | 0         | 16      | 0           |

Adina ez da aintzat hartzeko faktorea eskoletako irakasleen kasuan, doktore gradua duten irakasleen portzentaiari dagokionez. Fakultate eta Goi Eskoletako kasuan, aldiz, berebiziko eragina du akademia graduan. Beraz, lehen aurkeztutako portzentaiak txikiak badira ere, denbora aurrera joan ahala normalizatu egingo direla espero daiteke, oro har, irakasle elebidunak, erdaldunak baino gazteagoak baitira. Azaldutako datuek, hala ere, aintzat hartzeko kontu bat utzi dute agerian: Orain arte irakasle elebidun asko sartu dira Fakultate eta Goi Eskoletan doktore gradua eskuratu gabe.

### 2.2.3. Irakaslegai Euskaldunak.

Azken urteotan esperientziak adierazi digunez, zenbait arlotan zailtasun bereziak daude sortu diren lanpostu elebidunak betetzeko. Zailtasun hauek osasun zientzien arloan eta, batez ere, ikasketa tekniko edo ingeniartzetan sortu dira

gehien bat, beste arloetako zenbait lanpostutan antzeko arazoak egon badira ere. Zoritxarrez, hutsik geratu diren lanpostuen kopuruari buruzko informazio historiko zehatzik ez dugu. Mota horretako arazoak izan direnean, lanpostuak hutsik geratu dira kasu batzuetan baina ez guztietan. Irakasle lanpostu bat hutsik ez geratzeak duen abantaila, eskolak eman ahal izatea da, baina hutsik ez geratzeagatik hautagaien arteko hautespen ahalmena oso txikia bada, abantaila arazo bihur daiteke epe ertainera begira. Arazo hauen inguruko datu zehatzik ez dago, baina hurbilketa bakun baten bidez, hautagai gutxi dituzten arloak ondo finka daitezke.

Euskara Errektoreordetzak eskuragarri dauka euskara proba gainditu duten hautagaien zerrenda. Azalpenik merezi ez duten zenbait arrazoirengatik, zerrenda hori ez da hautagaiena, gainditutako probena baizik. Desberdintasuna garrantzizkoa da baina ez hemengo azterketari dagokionez. Izan ere, hautagai berberak euskara proba bat baino gehiago gainditu ahal izaten zuen probetarako prozedura berria ezarri gabe zegoenean. Informazio hori guztia, ondorengo taulan bilduko dugu eta jakintzaren arlo nagusien arabera sailkatu. Gainera, arlo nagusi bakoitzari dagokion irakasle kopurua ere sartu da, kopuru hori erreferentzia gisa erabiltzeko asmoz.

Eskola honetan eskaintzen diren berezitasunetan, batean izan ezik, oso ikasle gutxi matrikulatzen dira euskaraz ikasteko. Ikasle kopuru altuen duena *Energi baliabideak, erregaiak eta lehergaiak* berezitasuna da. Horretarako, **B** maila proposatuko dugu. Beste hiru berezitasunak aukeratzeko dituzten ikasleek komunak diren irakasgaiak ikasi ahal izango dituzte euskaraz.

### XXIX.I. Meatzeen Ustiakuntza

| <u>Irakasgai mota</u>   | <u>Kredituak</u> |
|-------------------------|------------------|
| <u>Halabeharrezkoak</u> | 204,5*<br>45     |
| <u>Hautazkoak</u>       | 7,5<br>4,5       |
| <u>Aukera askea</u>     | 24               |
| <u>Orotara</u>          | 236<br>49,5      |

\* Kreditu horien barruan, ikasketen amaiera proiektuari dagozkion 8 kredituak eta atzerritar hizkuntzari dagozkion 3 kredituak sartu dira.

**6 ikasle matrikulatuak lehen mailan**

**Talde egitura:** Praktika eta teoria talde bat kasu guztietan.

### XXIX.II. Meatzeetako Instalazio Elektro-Mekanikoak

| <u>Irakasgai mota</u>   | <u>Kredituak</u> |
|-------------------------|------------------|
| <u>Halabeharrezkoak</u> | 201,5*<br>45     |
| <u>Hautazkoak</u>       | 10,5<br>4,5      |
| <u>Aukera askea</u>     | 24               |
| <u>Orotara</u>          | 236<br>49,5      |

\* Kreditu horien barruan, ikasketen amaiera proiektuari dagozkion 8 kredituak eta atzerriko hizkuntzari dagozkion 3 kredituak sartu dira.

**6 ikasle matrikulatuak lehen mailan**

**Talde egitura:** Praktika eta teoria talde bat kasu guztietan.

### XXIX.III. Mineralurgia eta Metalurgia

| <u>Irakasgai mota</u>   | <u>Kredituak</u> |
|-------------------------|------------------|
| <u>Halabeharrezkoak</u> | 204,5*<br>45     |
| <u>Hautazkoak</u>       | 7,5<br>4,5       |
| <u>Aukera askea</u>     | 24               |
| <u>Orotara</u>          | 236<br>49,5      |

\* Kreditu horien barruan, ikasketen amaiera proiektuari dagozkion 8 kredituak eta atzerriko hizkuntzari dagozkion 3 kredituak sartu dira.

6 ikasle matrikulatuak lehen mailan

**Talde egitura:** Praktika eta teoria talde bat kasu guztietan.

### XXIX.IV. Energi Baliabideak, Erregaiak eta Lehergaiak

| <u>Irakasgai mota</u>   | <u>Kredituak</u> |                  |
|-------------------------|------------------|------------------|
|                         | <u>Orain</u>     | <u>II. Plang</u> |
| <u>Halabeharrezkoak</u> | 174,5*<br>45     | 174,5            |
| <u>Hautazkoak</u>       | 37,5<br>4,5      | 4,5              |
| <u>Aukera askea</u>     | 24               |                  |
| <u>Orotara</u>          | 236<br>49,5      | 179              |

\* Kreditu horien barruan, ikasketen amaiera proiektuari dagozkion 8 kredituak eta atzerriko hizkuntzari dagozkion 3 kredituak sartu dira.

25 ikasle matrikulatuak lehen mailan

**Talde egitura:** Praktika eta teoria talde bat kasu guztietan.

Lehen mailako ikasle kopuruak azken bost ikasturteetan (Ikasketa palngintza zaharrear):

| <u>Ikasturtea</u>     | <u>1993/1994</u> | <u>1994/1995</u> | <u>1995/1996</u> | <u>1996/1997</u> | <u>1997/1998</u> |
|-----------------------|------------------|------------------|------------------|------------------|------------------|
| <u>Ikasle kopurua</u> |                  | 38               | 34               | 44               |                  |

## XXX. Hiritar Itsasketaren Goi Eskola

Eskola honetan ez da inolako eskaintzarik egin euskaraz orain arte. Beraz, hemen ematen diren titulazioei dagokien irakats eskaintzaren zati bat euskaraz ematen hastea da Eskola honetarako helburu nagusia.

### XXX.I. Itsas Nabigazioan Diplomatua

Ikasle kopurua txikia izango dela eta orain arte ezer ere euskaraz eskaini ez dela kontuan harturik, D maila proposatuko dugu diplomatura honetarako.

| <u>Irakasgai mota</u>   | <u>Kredituak</u> |                  |
|-------------------------|------------------|------------------|
|                         | Orain            | <i>II. Plang</i> |
| <u>Halabeharrezkoak</u> | 184,5            | <b>61,5</b>      |
| <u>Hautazkoak</u>       | 18               |                  |
| <u>Aukera askea</u>     | 22,5             |                  |
| <u>Orotara</u>          | 225              | <b>61,5</b>      |

**Talde egitura:** Praktika eta teoria talde bat kasu guztietan.

### XXX.II. Itsasuntzi Makinetan Diplomatua

Itsas Nabigazioan bezala, D maila proposatuko dugu diplomatura honetarako.

| <u>Irakasgai mota</u>   | <u>Kredituak</u> |                  |
|-------------------------|------------------|------------------|
|                         | Orain            | <i>II. Plang</i> |
| <u>Halabeharrezkoak</u> | 190,5            | <b>61,5</b>      |
| <u>Hautazkoak</u>       | 12               |                  |
| <u>Aukera askea</u>     | 22,5             |                  |
| <u>Orotara</u>          | 225              | <b>61,5</b>      |

**Talde egitura:** Praktika eta teoria talde bat kasu guztietan.



### 3.1.4. Laburpen Orokorra

| Ikastetxea  | Ikasketak     | Maila       | Halabehar | Halbehar II    | Hautazko | Hautazko II  |
|---|---------------|-------------|-----------|----------------|----------|--------------|
| <b>Farmazia</b>                                       |               |             |           |                |          |              |
|   | Farmazia      | <b>B-C</b>  | 92,5      | <b>210-263</b> | 12       | <b>12-24</b> |
|   | Elikag. Z & T | <b>C</b>    | 0         | <b>40</b>      | 12       | <b>12</b>    |
|   | Dietetika     | <b>C</b>    | -         | <b>112</b>     | -        | <b>12</b>    |
| <b>F., G. eta His.</b>                                |               |             |           |                |          |              |
|   | F. Klasikoa   | <b>A-B</b>  | 72        | <b>120</b>     | 42       | <b>42</b>    |
|   | Frantses F.   | <b>A</b>    | 57        | <b>103</b>     | 102      | <b>174</b>   |
|   | Hispaniar F.  | <b>A</b>    | 63        | <b>135</b>     | 117      | <b>189</b>   |
|   | Ingeles F.    | <b>A</b>    | 54        | <b>126</b>     | 108      | <b>174</b>   |
|   | Geografia     | <b>B</b>    | 147       | <b>171</b>     | 12       | <b>12</b>    |
|   | Historia      | <b>A-A+</b> | 203       | <b>203</b>     | 93       | <b>129</b>   |
|   | Artearen Hist | <b>A-B</b>  | 78        | <b>174</b>     | 54       | <b>54</b>    |
| <b>Enpresa I U E Enpresa Ikas. --</b>                 |               |             |           |                |          |              |
| <b>Magisterio Ga</b>                                  |               |             |           |                |          |              |
|   | Kirol Hezik.  | <b>A+</b>   | 178,5     | <b>178,5</b>   | 33       | <b>33</b>    |
|   | Haur Hezk.    | <b>A+</b>   | 171       | <b>171</b>     | 55,5     | <b>55,5</b>  |
|   | Lehen Hezk.   | <b>A+</b>   | 13,5      | <b>175,5</b>   | 0        | <b>21</b>    |
| <b>Ind &amp; Top IT</b>                               |               |             |           |                |          |              |
|   | Topografia    | <b>D</b>    | 0         | <b>60</b>      | 0        | <b>0</b>     |
|   | Elektrizitat. | -           | 37,5      | <b>37,5</b>    | 6        | <b>6</b>     |
|   | Elektronika   | -           | 37,5      | <b>37,5</b>    | 6        | <b>6</b>     |
|   | Mekanika      | <b>B-C</b>  | 72        | <b>113-170</b> | 6        | <b>6</b>     |
|   | Kimika        | -           | 36        | <b>36</b>      | 6        | <b>6</b>     |
| <b>Gizarte Lan. Gizarte Lana C 0 110 0 3</b>          |               |             |           |                |          |              |
| <b>Kimika Fak Kimika A</b>                            |               |             |           |                |          |              |
| <b>Zuzenbidea</b>                                     |               |             |           |                |          |              |
|   | Zuzenbide Do  | <b>A+</b>   |           |                |          |              |
|   | Zuzenbide Le  | <b>A</b>    |           |                |          |              |
| <b>Informatika Informatika A+ 225 225 108 &gt;108</b> |               |             |           |                |          |              |
| <b>Filos &amp; Hezk</b>                               |               |             |           |                |          |              |
|   | Giz Kult Ant  | <b>C</b>    | 26,5      | <b>40</b>      | 3        | <b>3</b>     |
|   | Gizarte Hezk  | <b>A+</b>   | 141       | <b>141</b>     | 25,5     | <b>90</b>    |
|   | Filosofia     | <b>A</b>    | 190       | <b>205</b>     | 45       | <b>80</b>    |
|   | Pedagogia     | <b>A</b>    | 226,5     | <b>226,5</b>   | 58,5     | <b>74</b>    |
|   | Psikopedagog  | <b>A</b>    | 63        | <b>75</b>      | 25,5     | <b>48</b>    |
| <b>Psikologia Psikologia A+ 195 195 160 &gt;160</b>   |               |             |           |                |          |              |



|             |             |   |                |                  |  |  |
|-------------|-------------|---|----------------|------------------|--|--|
| Arkitektura | Arkitektura | C | 1. eta 2. mail | <b>1. zikloa</b> |  |  |
|-------------|-------------|---|----------------|------------------|--|--|

|                  |               |    |       |              |      |           |
|------------------|---------------|----|-------|--------------|------|-----------|
| Enpres IUE<br>Do | Enpresa Ikask | A+ | 145,5 | <b>145,5</b> | 22,5 | <b>81</b> |
|------------------|---------------|----|-------|--------------|------|-----------|

|                              |                   |             |       |                  |       |                |
|------------------------------|-------------------|-------------|-------|------------------|-------|----------------|
| Erizaintza UE                | Erizaintza        | <b>B</b>    | 80    | <b>189,5</b>     | 4,5   | <b>4,5</b>     |
| <b>Magisterio Do</b>         |                   |             |       |                  |       |                |
|                              | Hezk berezia      | <b>A+</b>   | 172,5 | <b>172,5</b>     | 33    | <b>33</b>      |
|                              | Haur Hezkun       | <b>A+</b>   | 171   | <b>171</b>       | 55,5  | <b>55,5</b>    |
|                              | Lehen Hezk        | <b>A+</b>   | 175,5 | <b>175,5</b>     | 46,5  | <b>46,5</b>    |
|                              | Atzerriko Hiz     | <b>A+</b>   | 177   | <b>177</b>       | 45    | <b>45</b>      |
| <b>IITUE Do</b>              |                   |             |       |                  |       |                |
|                              | Elektrizitate     | <b>C</b>    | 70,5  | <b>115</b>       | 0     | <b>0</b>       |
|                              | Elektronika       | <b>A</b>    | 76,5  | <b>174</b>       | 15    | <b>38</b>      |
|                              | Mekanika          | <b>A</b>    | 72    | <b>169,5</b>     | 13,5  | <b>42,5</b>    |
|                              | Kimika            | <b>C</b>    | 57    | <b>110</b>       | 0     | <b>0</b>       |
| <b>IITUE Eibar</b>           |                   |             |       |                  |       |                |
|                              | Electronika       | <b>-</b>    | -     | <b>-</b>         | -     | <b>-</b>       |
|                              | Mekanika          | <b>B-C</b>  | 0     | <b>113-169,5</b> | 0     | <b>0</b>       |
| <b>Zientzia Fak</b>          |                   |             |       |                  |       |                |
|                              | Biologia          | <b>A+-A</b> | -     | <b>178</b>       | -     | <b>114-228</b> |
|                              | Biokimika         | <b>C</b>    | 22,5  | <b>34</b>        | 15    | <b>15</b>      |
|                              | Matematika        | <b>B</b>    | 123   | <b>190,5</b>     | 18    | <b>18</b>      |
|                              | Fisika            | <b>B</b>    | -     | <b>-</b>         | -     | <b>-</b>       |
|                              | Geologia          | <b>A</b>    | -     | <b>-</b>         | -     | <b>-</b>       |
|                              | Kimika            | <b>A</b>    | -     | <b>-</b>         | -     | <b>-</b>       |
| <b>Arte Ederrak</b>          |                   |             |       |                  |       |                |
|                              | Bi berezitasun    | <b>A+</b>   | 132   | <b>177</b>       | 303   | <b>&gt;303</b> |
|                              | Besteetan         | <b>A-B</b>  | 114   | <b>159</b>       | 303   | <b>&gt;303</b> |
| <b>Ekon &amp; Enpr<br/>Z</b> |                   |             |       |                  |       |                |
|                              | EZA Bi berez.     | <b>A</b>    | 210   | <b>210</b>       | 12    | <b>72</b>      |
|                              | EZA beste         | <b>B</b>    | 210   | <b>210</b>       | 12    | <b>36</b>      |
|                              | EZA Donostia      | <b>A</b>    | 72    | <b>72</b>        | 0     | <b>72</b>      |
|                              | Ekon Bi berez     | <b>A</b>    | 217,5 | <b>217,5</b>     | 12    | <b>66</b>      |
|                              | Ekon beste        | <b>B</b>    | 217,5 | <b>217,5</b>     | 12    | <b>33</b>      |
|                              | Finantza ZZ       | <b>C</b>    | 0     | <b>40</b>        | 6     | <b>6</b>       |
| <b>Giz &amp; Kom Z</b>       |                   |             |       |                  |       |                |
|                              | Ikusentzunek<br>o | <b>A+</b>   | 187,5 | <b>228</b>       | 124,5 | <b>124,5</b>   |
|                              | Kazetaritza       | <b>A+</b>   | 207   | <b>228</b>       | 106,5 | <b>120</b>     |
|                              | Publiz & HP       | <b>A+</b>   | 205,5 | <b>228</b>       | 106,5 | <b>106,5</b>   |
|                              | Politika Zien     | <b>B</b>    | 200   | <b>220</b>       | 15    | <b>15</b>      |
|                              | Soziologia        | <b>A</b>    | 189   | <b>219</b>       | 69    | <b>87</b>      |
| <b>Medik &amp; Odo</b>       |                   |             |       |                  |       |                |
|                              | Medikuntza        | <b>C</b>    | 197   | <b>287</b>       | 44    | <b>44</b>      |
|                              | Odontologia       | <b>D</b>    | 9,5   | <b>100</b>       | 7     | <b>7</b>       |

|                       |                      |            |       |                |      |             |
|-----------------------|----------------------|------------|-------|----------------|------|-------------|
| <b>ITIGET</b>         |                      |            |       |                |      |             |
|                       | Industria            | <b>A-B</b> | 157,5 | <b>303</b>     | 9    | <b>9-35</b> |
|                       | Telekomun            | <b>B-C</b> | 69    | <b>194-286</b> | 4,5  | <b>4,5</b>  |
| <b>Enpres IUE Bi</b>  | <b>Enpresa Ikask</b> | <b>A</b>   | 111,5 | <b>145,5</b>   | 29   | <b>40,5</b> |
| <b>Erizaintza UE</b>  | <b>Erizaintza</b>    | <b>C</b>   | 42,5  | <b>126</b>     | 4,5  | <b>4,5</b>  |
| <b>Magisterio Bi</b>  |                      |            |       |                |      |             |
|                       | Haur Hezkun          | <b>A+</b>  | 171   | <b>171</b>     | 15   | <b>30</b>   |
|                       | Musika Hezk          | <b>A+</b>  | 177   | <b>177</b>     | 15   | <b>18</b>   |
|                       | Lehen Hezk           | <b>A+</b>  | 175,5 | <b>175,5</b>   | 24   | <b>24</b>   |
|                       | Atzerriko Hiz        | <b>A+</b>  | 177   | <b>177</b>     | 12   | <b>18</b>   |
|                       | Gizarte Hezk         | <b>A+</b>  | 132   | <b>141</b>     | 43,5 | <b>90</b>   |
| <b>Lan Harr UE</b>    | <b>Lan Harrem</b>    | <b>A+</b>  | 183   | <b>183</b>     | 24   | <b>24</b>   |
| <b>IITUE Bi</b>       |                      |            |       |                |      |             |
|                       | Elektrizitate        | <b>B</b>   | 73,5  | <b>172,5</b>   | 6    | <b>6</b>    |
|                       | Elektronika          | <b>B</b>   | 82,5  | <b>174</b>     | 6    | <b>6</b>    |
|                       | Mekanika             | <b>B</b>   | 78    | <b>169,5</b>   | 6    | <b>6</b>    |
|                       | Kimika               | <b>--</b>  | 42    | <b>42</b>      | 6    | <b>6</b>    |
| <b>Meatze ITUE</b>    |                      |            |       |                |      |             |
|                       | Ustiakuntza          | <b>--</b>  | 45    | <b>45</b>      | 4,5  | <b>4,5</b>  |
|                       | Inst Elek Mek        | <b>--</b>  | 45    | <b>45</b>      | 4,5  | <b>4,5</b>  |
|                       | Miner & Met          | <b>--</b>  | 45    | <b>45</b>      | 4,5  | <b>4,5</b>  |
|                       | Energi Bal.          | <b>B</b>   | 45    | <b>174,5</b>   | 4,5  | <b>4,5</b>  |
| <b>Hiritar Itsask</b> |                      |            |       |                |      |             |
|                       | Nabigazioa           | <b>D</b>   | 0     | <b>61,5</b>    | 0    | <b>0</b>    |
|                       | Makinak              | <b>D</b>   | 0     | <b>61,5</b>    | 0    | <b>0</b>    |

Ondorengo taulan, arloka egindako laburbilpena aurkeztu da. Ikasketa plangintza berria ezarri ez den ikasketetako daturik ez da sartu. Horiek sartu izan balira, gaurko halabeharrezkoen euskarazko eskaintza %55a izango litzateke eta II. Plangintzaren ondoren egongo den eskaintza % 80ekoa.

| Arlo Nagusia             | Giza Jakintzak | Gizarte Zientziak | Osasun Zientziak | Natur eta Saio Zient. | Ikasketa Teknolog. | Orotara |
|--------------------------|----------------|-------------------|------------------|-----------------------|--------------------|---------|
| Halbehar. esk. (orot.)   | 4396           | 3082              | 1653             | 392,5                 | 4541               | 14064,5 |
| Halbehar. esk. (eusk.)   | 3344,5         | 2123,5            | 421,5            | 145,5                 | 1366,5             | 7401,5  |
| %                        | 76             | 69                | 25               | 37                    | 30                 | 53      |
| Halbehar. II. Plang.     | 3979           | 2441,5            | 1089             | 224,5                 | 2781               | 10515   |
| %                        | 91             | 79                | 66               | 48                    | 61                 | 75      |
| Bete behar. hautazko     | 1141           | 764,5             | 133,5            | 139,5                 | 839,5              | 3132    |
| Haut. eskain. (eusk.)    | 1499           | 687               | 79,5             | 33                    | 216                | 2514,5  |
| Haut. II. Plang.         | 1882           | 953               | 97,5             | 33                    | 281                | 3246,5  |
| Bete behar. orotara      | 5537           | 3846,5            | 1786,5           | 532                   | 5380,5             | 17082,5 |
| Eusk. eskain. (orotara)  | 4843,5         | 2810,5            | 501              | 178,5                 | 1582,5             | 9916    |
| Eusk. II. Plang. (orot.) | 5861           | 3994,5            | 1186,5           | 257,5                 | 3062               | 13761,5 |

### 3.1.5. Aukera Askeko Kredituak

Aurrera jarraitu baino lehen, beharrezkoa da aukera askeko irakasgaietara buruz hitz batzuk esatea. Hurrengo atalean ikusi ahal izango denez, ikasketa plangintzaren koadroetan ez da aukera askeko kredituei buruzko inolako daturik aurkeztu. Jakina denez, ikasketa plangintza berria duten ikasketa guztietan, aukera askeko kredituak ikasketak amaitzeko bete behar diren kreditu guztien % 10era heltzen dira. Oro har, era honetako irakasgaien euskarazko eskaintza nahiko mugatua da baina ezin daiteke esan hutsa denik. Izan ere, hautazko irakasgaiak aukera askeko kredituak betetzeko erabiltzen dira askotan. Bestalde, aukera askeko kredituen eskaintzak, definizioz, ikasketa guztietarako balio du eta, ondorioz, edozein ikastetxetako ikasleek har litzakete euskaraz eskaintzen diren hautazko irakasgaiak. Hau, dena den, teoria hutsa da, zeren kasu gehienetan ikasleak bere ikastetxeko irakasgaiak aukeratzen baititu soilik eta beraz, eskaintza mugatua da. Bestalde, aukera aske hutsezkoak diren irakasgaien eskaintza orokorra mugatua da berez eta are gehiago euskaraz egiten dena. Hala ere, Euskal Herriko Unibertsitateak aukera askeko kredituak bete ahal izateko, prozedura berri bat egituratu du akademia alorretik kanpo burutzen diren jardueren bidez. Esparru honetan ez dago hizkuntzarekin zerikusia izan dezakeen ikuspegi arautzeko modurik, zeren jarduera horietako gehienak gure eskumenetik kanpo baitaude. Gogorarazi behar da, hala ere, euskara gaitasun agiriaren truke era honetako kredituak lor daitezkeela. Era berean, euskara ikasketak erabil daitezke

aukera askeko kredituak baliokidetzeko. Bi baliokidetza modu horiek onartu berri ditu Gobernu Batzarrak 1998/99 ikasturterako.

Aurreko lerroetan egindako gogoetaren ondorioa, dena den, honakoa dugu: Aukera askeko kredituen euskarazko eskaintza neurtzea zaila izan arren, eskaintza mugatua dela esan daiteke. Beraz, helburu zehatzik ipini gabe ere, aukera askeko euskarazko eskaintzan ardura berezia jarriko dugu II. Plangintza honetan.

Horretarako, hiru ekintza motak proposatuko ditugu:

- a) 1998/99 ikasturterako onartu den baliokidetza sistemari jarraikortasun ematea.
- b) Irakasle elbidunen irakats ahalmena, halabeharrezko eta hautazko irakasgaien bidez bere osotasunean erabiltzen ez denean, aukera askeko irakasgaiak eskaintzeko proposamena luzatuko zaio dagokion Sailari.
- c) 3.3. atalean aurkeztuko diren informatika tresna berriak erabiliko dira aukera askeko eskaintza gehitzeko.

### **3.1.6. Ikasketen Antolakuntza**

Euskarazko irakats eskaintza eta euskarazko ikasketen eskariari buruzko informazioa Euskara Errektoreordetzak argitaratu duen *EHUko euskarazko irakats eskaintzaren egoera* izenburu duen txostenean aurkeztu da. Bertan, beste kontu batzuen artean, euskarazko taldeetan matrikulatzen diren ikasleen portzentaiak eta portzentaia horiei dagokienez ikasketa desberdinen artean dagoen alde handia aztertu dira. Azterketa horretatik atera den ondorioz garrantzizkoena honakoa da: Euskarazko irakats eskaintza, ahula denean, ikasle euskaldun askok ez dituzte beren ikasketak euskaraz egiten. II. Plangintza honen ezarpenak ekarriko duen eskaintzaren gehipenak zuzendu beharko luke behatutako gertaera hori.

Hala ere, euskarazko eskaintza oso zabala dagoen ikasketetan ere, ikasle euskaldun askok gaztelania aukeratzen dute matrikula egiterakoan. Hori, beste kontu batzuk bezala, hizkuntzaren egoera normalizatugabe baten adierazlea da. Gertaera horren balizko eragileetako bat, talde egituraren antolaketa izan daiteke. Beraz, beste antolaketa sistema bat aztertuko da eta ahalbidetze teknikoak izanez gero, abian jarriko ere. Antolaketa berriaren arabera, matrikula egiterakoan ikasleek aukera izango dute irakasgai guztiak euskaraz egiteko (euskaraz eskaintzen badira, jakina), dena gaztelaniaz edo ikasturte berean irakasgai bakoitzerako hizkuntza hautatzeko. Era honetan, gaur gaztelaniaz ikasten duten ikasle euskaldun askok bere ikasketen alde bat gutxienez, euskaraz egin lezakete.

### **3.1.7. Hautazko Irakasgaien Eskaintza gehitzeko Mugak**

Ikasketa bakoitzerako helburuak 3.1.3. atalean aurkeztu dira. Helburu horien arabera, zenbait titulaziotarako hautazko irakasgaien eskaintzaren gehipena aurreikusi da. Honek, hala ere, badu muga garrantzitsu bat: ikasle kopurua. Jakina denez, hautazko irakasgai bat 10 ikasle baino gutxiagok aukeratzen badute, taldea ez da eratzen eta, ondorioz, irakasgai hori ezin eskain daiteke. Argi dago, bestalde, euskaraz matrikulatzen diren ikasle kopuruak bi edo hiru aldiz txikiagoak direla erdaraz egiten dutenenak baino. Hori horrela, begi bistako arriskua sor daiteke hautazkoen eskaintza oso zabala denean.

Euskarazko irakasgaien kasuan, hautazkoen eskaintza ez da handia izaten baina zenbait titulaziotan hel liteke deskribatutako egoerara, A+ helburua ezarri den kasu batzuetan hain zuzen ere. Hori sahiestu egin behar genuke, zeren hautazko horiek eman ahal izateko behar diren baliabideak askoz ere etekin hobez erabil bailitezke beste ikasketetan. Beraz, balizko gertaera horri ekiditeko, ez da onartuko 10 ikasle baino gutxiago duen talderik edo, irizpide horren orde, halabeharrezko irakasgaietan matrikulatuta dauden ikasleen erdira heltzen ez direnak.

### **3.1.8. Ikasketen Amaiera Proiektuak eta Tesinak**

Ikasleek bete behar dituzten halabeharrezko kredituen alde bat, ikasketen amaiera proiektuari dagokio zenbait ikasketetan. Arlo teknologikoetan garrantzi berezia dute jarduera mota hauek, ikaslearen hezkuntzarako ezinbesteko osagaia baita. Beste alde batetik, ikerkuntzan lehenengo urratsak eman nahi dituzten ikasleentzat, tesinek pareko balioa dute, halabeharrezko kredituen baliokideak ez badira ere.

Garrantzi handikoa deritzogu era horretako lanak euskaraz prestatzeari. Biak dira jarduera profesionalean aritzeko lehenengo urratsak eta hainbat kasutan, euskaraz egin daitekeen bigarren zikloko formazio jarduera bakarra. Hori horrela izanik, era honetako jarduerak bultzatu behar dira. Horretarako, tesiak euskaraz aurkezteko hartuko diren pareko neurriak hartuko dira hemen, baina dagokion mailan.

### **3.1.9. Hirugarren Zikloa eta Doktorego Programak.**

Doktorego Programetan ematen den irakaskuntzaren ezaugarri bereziak direla eta, eremu hau hizkuntza plangintzatik kanpo utziko dugu. Hala ere, interes handikoa da goreneko mailari dagokion eta ikerkuntzarako prestakuntzarekin lotura zuzena duen irakaskuntzan euskara erabili ahal izatea.

Doktorego Programetarako sortu den arautegi berriak baldintza hertsia ezaugarri bereziak ematen ditu Programa bat eskaini ahal izateko baina, era berean, Programa bakoitzean parte hartuko duen ikasle kopurua altuagoa izango da kasu askotan.

Baldintza horien menpean ez bide da eragozpen larririk izango euskaldunen talde bat eratzeko, ez eta talde horri ikastaroren bat euskaraz eskaintzeko. Ikastaro bat eman ahal izateko ikasleen gutxieneko kopuru bat finkatuta badago, euskaraz eskaini ahal izateko kopuru hori beste edozein ikastaro eskaintzeko behar denaren erdia izango da.

Era berean, Sail batek Programa oso bat euskaraz eskaintzeko asmoa balu, izena eman beharko luketen ikasleen gutxieneko kopurua, gaztelaniaz eman ahal izateko finkatuta dagoen kopuruaren erdia izango litzateke.

### ***3.2. Ikasketa Berrietan.***

Ezaguna denez, Gobernu Batzarrak Titulazio Berrien Mapa onartu du joan den ikasturtean. Mapa horretan, Unibertsitateak datozen urteotan eskaini ahal izango dituen ikasketa berriak bildu dira. Hartutako erabakiaren arabera, Maparen onarpenak ez du esan nahi bertan aipatzen diren titulazio guztiak eskainiko direnik. Horretan, Gizarte Kontseiluari eta Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerkuntza Sailari dagokie azken erabakia. Beraz, erabakia egiterakoan, Unibertsitateak balizko eskaintza bat egin du, akademia irizpideak erabiliz eta dituen ahalmenetan oinarriturik.

Mapa horretan proposatu diren titulazioetatik batzuk eskainiko dira seguruenik eta, begi bistakoa denez, horiek ere kontuan hartu behar dira hizkuntza plangintza egiterakoan. Izan ere, ikuspegi hau hartutako erabakiaren testuan dago baina komenigarria dirudi dokumentu honetan horren inguruko helburuak zehazteak. Kasu honetan, bestalde, helburuak ezin izan daitezke oso zehatzak eta ikasketa berriak abian jarri arte ez dugu helburuak behin-betiko finkatzerik izango.

Edozein modutan ere, irizpideak aurreratzea baliagarria izan daitekeelakoan, jadanik ematen diren ikasketetarako erabili diren irizpide berberak erabili beharko direla azpimarratu behar da. Beraz, aurreko ataletan aurkeztu eta erabili diren irizpideei jarraituz, ikasle euskaldunen kopurua izango da irizpide nagusia eta horren arabera ezarriko da erreferentzia helburua. Orain arte eskaini ez diren ikasketak izanik, ez da abiapunturik izango eta, beraz, guztientzat berdina izango da. Titulazio berria gaur eskaintzen den berezitasun baten transformazioa denean, abiapuntua ez da hutsa izango eta hori ere kontuan hartu beharko da.

Lurralde banaketari dagokionez, titulazio berri bat ikastetxe batean baino gehiagotan eskaini behar bada, orduan, ikasle euskaldun gehien duen ikastetxetik hasi beharko da euskarazko eskaintza. Beste ikastetxeetara zabaldu ahal izango da hurrengo Normalizazio Plangintza onartzen denean, erabiliko diren irizpide berrien arabera.

Irizpide hauek erabiliz eta Euskara Batzordearen txostena ezagutu eta gero, Gobernu Batzarrak ezarriko du ikasketa berriei egokituko zaien helburua. Titulazio berria orain eskaintzen den titulazio baten edo berezitasun baten transformazioa denean, helburuak ezartzeko orduan oraingo ikasketen hizkuntza egoera kontuan hartu beharko da eta, batez ere, irakasle elebidunen kopurua eta arduraldia. Honekin lotuta, garrantzi handia izan dezakeen gertaera baten inguruko hau azpimarratu behar da: Irakasle elebidunek orain euskaraz ematen dituzten eskola orduak ezin izango dira erabili gaztelaniazko behar berriak betetzeko. Beraz, titulazio berrien ezarpenak ezin izango du euskarazko ikasketen eskaintzaren beherapenik ekarri.

Azkenik, Euskal Herriko Unibertsitatean ezarriko diren titulazio berri guztietan, Euskara Tekniko I eta Euskara Tekniko II hautazko irakasgaiak (edo horien baliokideak) ikasketa plangintzan sartu beharko dira, orain arte jarraitu den prozedurari eutsiz. Irakasgai horien kreditu kopurua, ikasketa plangintzaren beste hautazko irakasgaiak dutenaren parekoa izango da.

### ***3.3. Irakaskuntza Esparru Berrietan.***

Lehenago esan den moduan, aukera askeko irakasgaien euskarazko eskaintza oso mugatua da. Izan ere, zaila da muga hori gainditzea orain ditugun baliabideen bitartez. Irakaskuntza antolatuta dagoen moduan, zaila da era honetako irakasgaietan matrikulatzeko prest dauden ikasleen gutxieneko kopuru bat bermatzea eta horrela ez dago plangintza egiterik.

Oraingo eskaintzaren defizit hori betetzeko, orain arte erabili ez diren edo oso erabilera murrizta izan duten tresna eta bide berrietara jo beharko genuke.

Joan den ikasturtean, Ingurune Zuzenbideari buruzko graduondoko titulua eskaini du Euskal Herriko Unibertsitateko Sail batek (Konstituzio eta Administrazio Zuzenbide Sailak). Titulu hori Interneten bidez eman da eta horretan dago horren aipagarritasuna. Bestalde, gero eta handiagoa da multimedia izenekoaren baliabide eta tresnen eskaintza eta horrek sekulako aukera zabala dakar ohiko gela batean ikaslea eta irakasleak egon beharrik gabe leku desberdinetatik ikastaro edo irakasgai bat jarraitu ahal izateko. Izan ere, era honetako irakaskuntza eskaintzen du Universitat Oberta de Catalunya izeneko goi mailako irakaskuntza erakundeak, non 7 titulu desberdin eskaintzen diren eta 1997/1998 ikasturtean Enpresa Ikasketetako lehen promozioak bukatu duen.

II. Plangintza honi dagokionez, helburuak ez du izan behar horren handia, baina argi dago aipatutako irakaskuntza tresna berriak erabil daitezkeela beste modu batean eskaintzeko zaila den irakaskuntza eman ahal izateko. Horretarako,



aukera askeko eta interes zabalekoak izan daitezkeen irakasgai gutxi batzuk finkatu beharko lirateke eta gai bakoitzean maila garaiko aditu bati eskatuko litzaioke irakasgai horietarako ikasmateriala prestatzeko. Horrek, zeresanik ez, dirulaguntza berezia beharko luke. Une honetan prestakuntza horren kostua ezin zehatz daiteke baina 3 eta 4 milioi pezeta inguru erabili beharko lirateke 9 kredituko irakasgai baterako materiala prestatzeko.

Datozen urteetarako helburua urteko 4 irakasgai prestatzea eta eskaintzea izango litzateke. Irakasgaiak aukera askekoak eta interes zabalekoak izan beharko dute eta programa honen barruan ikastetxe desberdinetan komunak diren hautazko irakasgai batzuk sar litezke era berean. Honetarako behar diren baliabideak gure aurrekontuetatik osorik atera beharrean, beste erakunde batzuek emandako laguntzetatik atera beharko lirateke.

### **3.4. Irakasleak.**

#### **3.4.1. Sortu beharko diren Irakasle Lanpostu Berrien Kopurua finkatzeko Bidea.**

Aurreko ataletan aurkeztutako helburuak bete ahal izateko beharko diren irakasle euskaldunen kopurua kalkulatzeko korapilotsu samarra da. Titulazio bakoitzeko maila bakoitzean egongo diren teoria eskoletarako eta praktika eskoletarako taldeen kopuruak ondo zehaztea da zailtasunik handiena daukana. Hori dela eta, hona hemen aintzat hartu beharreko bi kontu: batetik, titulazio bat aukeratuko duten ikasleen kopurua aurreikusi behar da eta, bestetik, irakaskuntza mota desberdinetarako taldeen tamaina egokiak finkatu behar dira.

Titulazio bakoitzeko maila desberdinetan matrikulatuta egongo diren ikasleen kopurua aurreikusteko hautatu den prozedura azken urteotan behatutako ikasle kopuruaren bilakaeran oinarritu da. Taldeen tamaina egokiari dagokionez, *Prozedura Bateratuaren* bitartez talde kopuruak finkatzeko erabiltzen diren irizpideak erabili dira. Modu honetan finkatu dira 3.1.3. azpiatalean aurkeztu diren talde egiturak. Dena den, hurrengo hilabeteetan aurkeztuko den *Plantila teorikorako irizpideak* izeneko dokumentuan zehazten denaren arabera birmoldatuko dira talde egitura horiek.

Talde kopuruak zehaztu eta gero, ikasketa plangintzetan agertzen diren irakasgaietako kreditu kopurua erabili da azken kalkuluak egiteko. Horrela, Jakintza arlo eta Sail bakoitzak eman beharko lituzkeen kredituak aurreikusi dira eta beharrezkoak izango diren irakasleak kalkulatu ere. Kalkulu horiek ez dira zehatzegiak izan hainbat kasutan, zeren, helburuak definituta dauden moduan, Jakintza arloen arteko irakaskuntza beharren banaketa desberdina izan baitaiteke

helburu horiek gauzatzerakoan. Adibidez, helburua halabeharrezko kredituen % 66a euskaraz eskaintzea bada, modu desberdinetan bete daiteke helburu hori, eskainiko diren irakasgaien jakintza arloaren arabera. Gauza bera gertatzen da hautazkoen eskaintzari dagokionez.

Aurreko kalkuluak egiterakoan, Sailek gaur duten irakats ahalmena bere osotasunean erabiliko dela suposatu da. Horrek esan nahi du Fakultateetako irakasleek 21 kredituko ahalmena dutela, doktorego ikastaroetarako edo eta materia berrien prestakuntzarako 3 kreditu erabil daitezkeela suposatu baita. Era berean, Eskolako irakasleei (Katedradunak salbu) dagokien ahalmena 30 kreditukoa dela onartu da, beste 6 kredituak prestakuntza lanetarako erabiliko baitira edo eta doktore graduaren lorpenari egoki dakioken arduraldiaren beherapena egingo baita. Suposizio horien eragin bakarra, Plangintza hau prestatzeko prozedurari dagokio eta beraz, honek ez du esan nahi hemendik aurrera erabiliko diren arduraldiak horiek izango direnik.

Bestalde, irakasle elebidunek gaztelaniaz ematen dituzten eskolei dagozkien kredituak ez dira sartu Sailen ahalmen edo kapazitatean. Horrek ez du esan nahi etorkizunean eskola horiek gaztelaniaz ematen jarraituko dutenik, baina egoki dirudi irakats ahalmen hori etorkizuneko beharrak ondo zehaztu arte erabili gabe uzteak.

### **3.4.2. Beharrak.**

Aurreko prozedurari jarraituz, 300 irakasle lanpostu berri inguru beharko direla aurreikusi da. Irakasle lanpostu berri horien Ikastetxe edo Sailen arteko banaketa hemen aurkezteak ez luke zentzurik izango. Batetik, egindako aurreikuspenak okerrak izan daitezke titulazio bati edo besteari dagokionez, batez ere ikasle kopuruaren etorkizuneko bilakaeraren aldetik. Bestetik, helburuen gauzaketa bera beharko litzateke banapen zehatza egin ahal izateko. Azkenik, arrazoi garrantzizkoena honako hau da: Irakasleen Errektoreordetza eta Unibertsitateko Irakasleen Batzordea dira irakasleen beharrak aztertu eta definitu behar dituztenak eta horretarako, ikasturte bakoitzean gertatuko den egoera da aintzat hartu behar dena.

### **3.4.3. Irakasleak lortzeko Bideak**

Beharrezkoak izango diren irakasle euskaldun gehienak lanpostu berrien bidez lortu beharko dira. Horretarako, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerkuntza Sailarekin hitzarmen bat behar izango da horrek ekarriko dituen kostuak finantzatzeko. Plangintza honetan aurreikusi diren beste ekintzen finantziazioarekin batera aztertu beharko da eta onartu berria den Unibertsitate Antolamendurako Legeak ireki duen Programa Kontratuaren bidea erabili ere.

Lanpostu berriak sortzeaz gain, hutsik geratuko diren eta desagerrarazi (amortizatu) behar diren lanpostuak erabil daitezke lanpostu elebidunak sortzeko. Izatez, oso bide murrizta da, plantilaren adin ertaina baxua delako eta, horren ondorioz, jubilazioen kopurua txikia delako. Edozein kasutan, bide hau ez da guztiz baztertu behar. Oraingo egoerari begira, urteko 5 lanpostu inguru erabil liteke datozen urteotan lanpostu elebidunak sortzeko. Hori, bi eratan egin daiteke. Zenbait kasutan, lanpostua amortizatu beharrean, nahikoa izango da hizkuntza soslaiaren aldaketa egitea. Hori egin ahal izango da irakasle elebidunen beharrak, amortizatzen den lanpostuaren sailean gertatzen direnean. Beste zenbait kasutan, aldiz, sailak lanpostu elebidunik behar ez izatea gerta liteke. Kasu horretan, lanpostuen zerrendaren ezaugarriak aldatu beharrean, lanpostuaren amortizazioak elebidun berri baten sortzea ekarriko luke.

#### **3.4.4. Irakasleen Hizkuntza Birziklaketa.**

Irakasleen hizkuntza birziklaketen bidea ez da oso emankorra izan orain arte. Izan ere, I Plangintzaren arabera, 146 irakasle erdaldun euskaldunduko zirela aurreikusi zen eta azkenean, 41 irakasle izan dira beren lanpostuak elebidun bihurtu dituztenak. Etorkizunean gauzak aldatuko diren ala ez aurreikustea oso zaila da. Dena den, behatutako joeren arabera, gaztelaniaz ikasi nahi izango duten ikasleen kopurua nabarmenki beheratuko dela dirudi. Egoera hau berri-berria dugu eta horren ondorioz, gaztelaniaz irakasteko beharrak beheratu egingo dira seguruenik. Horren aurrean, eta etorkizunean sor daitezkeen desoreka eta zailtasunei ahal den neurrian aurre egiteko, komenigarri samarra izan daiteke Unibertsitatearentzat birziklaketaren bidea jorratzea. Beraz, datozen urteetarako, irakasleen hizkuntza birziklaketa bultzatzeko, honako neurri hauek hartuko dira:

- a) Behin-behineko moduan kontratatuta ez dauden irakasle guztiei euskarazko ikastaroetarako matrikulak eta beharrezkoak diren bestelako gastuak ordaindu egingo zaizkie.
- b) Euskara ikasteko askapenentarako dirulaguntzak emango dira. Euskara Errektoreordetzak euskara ikasteko askatua izateko deialdia egingo du urtero eta deialdi horretan askatua izateko baldintzak eta lehentasunak ezarriko dira Euskara Batzordeari entzun ondoren. Plangintza hau ez da horren inguruko zehaztasunik azaltzeko dokumentu egokia, baina bi eratako eskariak aurkeztu ahal izango direla auresan daiteke: Irakasle bakar batek egin dezakeena eta Sail batek egin ahal izango duena. Sailek egingo dituzten eskariak Sailaren Euskalduntzerako Plana izena izango dute eta irakasle bat baino gehiago euskalduntzeko prestatuko da.

- c) Irakasleen euskalduntzerako jarduerak aintzat hartuko dira soldata osagarriak lortzeko, jarduera horien ondorioz lanpostua elebiduntzen bada.
- d) Euskara ikasteko askatzen diren irakasleen lanpostuak betetzeko kontratatuko diren irakasleak elebidunak izango dira. Horrela, askapenak irauten duen bitartean aukera emango zaio plantilako irakaslea izatera hel litekeen irakaslegaia irakaskuntzan trebatzeko.

### **3.4.5. Irakasleen Lan Baldintzak.**

Plangintza honetan jasotzen ari garen proposamen batzuk (hizkuntza birziklaketak, itzulpengintzan irakasleak aritzekoak eta abarrek) eragina izan dezakete irakasleen lan baldintzetan eta zerikusi zuzena dute irakasleen etengabeko prestakuntzarekin. Hori dela eta, eta Administrazio eta Zerbitzuetako Pertsonalaren kasuan egiten den bezala, 1996ko Lan Hitzarmenak jaso duen Irakasleen Etengabeko Prestakuntza, Hobekuntza eta Euskalduntzerako Batzordean (76. Artikulua) aztertu eta hitzartuko dira proposamenak beraiek eta indarrean jartzeko prozedura ere.

Edonola, lan baldintzekin bai zerikusi zuzena izan dezaketen ikuspegiak edo Plangintza honek izan ditzakeen ondorioak irakasleen ordezkari sindikalekin batera aztertuko dira eta hurrengo Lan Baldintzak arautzeko hitzarmenean adostuko ere.

### **3.4.6. Lanpostu Berrien Trataera.**

Orain arte, irakasle lanpostu bat sortu denean, Euskara Errektoreordetzak txosten bat egin behar izan du lanpostuaren hizkuntza soslaia definitzeko. Era honetan, etorkizunean sor daitezkeen beharrei aurre egin ahal izango zaie, nahiz eta orain horrelako beharrik ez egon.

Aurrera begira, prozedura berbera erabiliko da eta, beraz, Euskara Errektoreordetzak hizkuntza soslaiak finkatzeko txostenak prestatzen jarraituko du. Txosten horietan hurrengo datuak azaldu beharko dira:

- a) Lanpostu berriaren Sailari eta Jakintza Arloari dagozkion irakaskuntza beharrak.
- b) Lanpostu berriaren Sailari eta Jakintza Arloari egokituko zaizkion beharrak, Plangintza honetan ezarritako helburuak bete ahal izateko.
- c) Sailean diren Jakintza Arloaren irakasle elebidunak.
- d) Behar berriei aurre egiteko behar izango diren irakasle lanpostu elebidunak.

Aurreko datuetan oinarrituta, Euskara Errektoreordetzak lanpostuari ezarri behar zaion hizkuntza soslaia proposatuko dio Unibertsitate Irakasleen Batzordeari.

### **3.4.7. Arlo Defizitarioetarako Formazio Programa.**

Aurreko atal batean (2.2.3.) azaldu den moduan, zenbait arlotan zail samarra da sortutako lanpostuak bete ahal izatea. Epe labur batean arazo hori ezin izango da erabat konpondu, lan merkatuaren ezaugarriekin lotuta baitago. Hala ere, Unibertsitatearen esku egon daitezkeen neurriak hartuko dira, konponbide bat aurkitzeko asmoz.

Kasu honetan, irakaslegai gutxi dauden Jakintza Arloetarako, formazio programa bat ezarriko da. Programa hori, Irakasleen Formaziorako Dirulaguntzen bidez gauzatuko da. Programa honen ezaugarri zehatzak (iraupena, dirulaguntza, baldintzak, etab.) Euskara Errektoreordetzak emango ditu.

Programa honen bitartez 10 eta 20 arteko irakaslegai euskaldunek, prestakuntza berezia jaso ahal izango dute sortuko diren lanpostu elebidun berriak bete ahal izateko. Honek ez du esan nahi hemen aurkeztu diren dirulaguntzak izanez gero, irakasle lanpostua bermatuta dagoenik. Lanpostuak betetzeko prozedura ez da aldatuko aipaturiko arazoari irtenbidea emateko.

### **3.4.8. Laguntzaile Euskaldunen Programa.**

2.2.2. atalean aurkeztu denez, Unibertsitatera sartu berriak diren irakasle elebidun gehienak ez dira doktoreak izan. Hori dela eta, kontratatu berria den Fakultateko irakasleak, irakats eta ikasmaterialak prestatzeaz gain, doktore tesia ere egin behar du bere lan jardueraren hasierako urteetan.

Egoerarik faboragarriena bestelakoa izango litzateke, bai irakaslearen ikuspuntutik eta bai irakaskuntzaren ikuspuntutik. Horrela, irakasle lanpostuak doktoreek bete beharko lituzkete baina, horretarako, ezinbestekoa da laguntzaileen bidea irekitzea.

Hori horrela izanik, laguntzailearen irudia datozen urteetan sortuko balitz, Plangintza honen helburuak bete ahal izateko beharko diren lanpostuak sortu baino lehen, laguntzaile lanpostuak sortu beharko lirateke. Beraz, aukera egonez gero, Euskara Batzordeak proposamen bat egingo du laguntzaileen kopuru jakin bat doktoregai euskaldunentzat gordetzeko.

### **3.4.9. Lankidetzaren Bekadunen Hizkuntza Soslaiak.**

Zenbait ikastetxetan lankidetzaren dirulaguntzak jasotzen dituzten ikasleek, irakaskuntzarekin harremana duten jarduerak bete behar izaten dituzte. Orain arte, dirulaguntza hauek jasotzen dituzten ikasleek euskararen ezagutza egiaztatzeke ez da inolako araurik onartu. Horren ondorioz, ikasle euskaldunak osatutako taldeei emandako zenbait praktika eskoletan bekadun erdaldunak parte hartu behar izan dute.

Horrelako egoerak sahisteko, euskarazko taldeetarako irakaskuntza praktikokan parte hartuko duten bekadunak euskaldunak izango dira, nahiz eta bere jardueraren zati bat besterik ez izan. Beraz, dirulaguntzetarako deia egiten denean, aurreikuspenak egin behar dira, aipaturikoa kontuan hartuz eta bekadun elebidunen kopurua beharren arabera moldatuz.

Aurrekoez gain, Euskal Herriko Unibertsitateak beste lankidetzaren dirulaguntzak eskaintzen dizkie ikasleei era desberdinetako jardueratan parte har dezaten. Dirulaguntza horiek jasotzen dituzten ikasleen hizkuntza soslaiak arautu gabe dago Beken Arautegian. Aurrera eramaten dituzten jarduerak era desberdinetakoak direnez, beharrezkoa da bekadunen hizkuntza soslaiak finkatzeko prozedura, gutxienez beste ikasleekin harreman zuzena duten kasuetan. Horretarako, Beken Arautegia aldatzeko proposamena egingo zaio Gobernu Batzarrari.

## ***3.5. Euskara Institutuaren Zeregina.***

1994ko uztailaren 20an egindako Gobernu Batzarreko bilkurak eta 1995eko maiatzaren 30eko Gizarte Kontseiluaren osoko bilkurak Euskal Herriko Unibertsitateko Euskara Institutua onetsi zuten, aldez aurretik Unibertsitate Kontseilua horren alde azaldu zelarik. Ondoren, 1996ko uztailaren 23an Gobernu Kontseiluak oniritzia eman zion Euskal Herriko Unibertsitateko Euskara Institutuaren sorrerari.

Orain arte, Euskara Institutuaren jarduerak urriak izan dira: irakasle euskaldunentzako birziklaketa ikastaroen antolaketa eta euskarazko testu liburuen hizkuntz zuzenketak nagusiki.

Institutua sortzeko egitasmoan aurreikusitakoaren arabera, aipatutakoaz gain, beste jarduera batzuk eraman behar zituen aurrera. Izan ere, II. Plangintza honen helburuei dagokienez, garrantzi handiko zereginak izango ditu Euskara Institutuak. Zeregin horiek ondoko hauek dira:

- a) *Euskarazko irakaskuntzan aritzen diren irakasleei aholkularitza eta laguntza ematea.* Eskolak euskaraz ematen dituzten irakasleek zailtasun bereziei aurre egin behar diete ikasmaterialak eta eskolak beraiek prestatzerakoan. Euskararen erabilerak oztopoak aurkitzen ditu Unibertsitate irakaskuntza bezalako esparru berrietan, zeren erabili behar diren berba eta esamoldek tradizio laburra baitute. Aholkularitza hori, beraz, garrantzi handikoa izango litzateke eta gaur ditugun posta elektronikoa bezalako informatika tresnak erabiliz, kostu mugatuko zerbitzu zabala eskaini lezake Euskara Institutuak.
- b) *Hiztegi bereziak prestatzea eta argitaratzea.* Arlo bakoitzean erabilera handia duten berbak biltzen dituzten hiztegi berezituak, ezinbesteko baliabideak dira euskarazko irakaskuntza jakintza esparru berrietara zabaldu nahi badugu. Azken batean, zientzia eta teknika berben ezagutza eta erabilera egokia, behar-beharrezkoa da unibertsitate irakaskuntzan duintasunez aritu ahal izateko.
- c) *Birziklatze eta hezkuntza iraunkorrerako ikastaroak ematea.* Orain arte egin den moduan eta aurreko bi ekintzak ondo garatu arte, era horretako ikastaroak interes handikoak izango dira. Bestalde, euskararen normatibizazioan ematen ari diren aurrerapausuen berri emateari oso komenigarri deritzogu.
- d) *Testu liburuen argitalpena.* Hauxe da orain arte garrantzi handien izan duen ekintza. Hala ere, kontu honi buruzko zehaztasunak 4. atalean emango dira.

Aipaturiko ekintzak aurrera eraman ahal izateko giza baliabide berriak behar izango dira. Izan ere, gaur irakasle bakar bat dago Institutuari atxikia eta begi-

bistakoa da hori ez dela nahiko. Beraz, datozen urteetan hartu beharko diren neurriak ondoko hauek dira:

- Goi teknikari lanpostu bat sortu eta Euskal Filologiaren arloko tituludun batez hornitu.
- Administrazio laguntzaileko lanpostu bat sortu.
- Beste irakasle bat arduraldi osoz atxiki.
- Proiektu jakin batzuetarako behin-behineko moduan eta zatiko arduraldiaz irakasleak atxiki.







## *4. Testu Liburuen Alorrari dagozkion Helburuak*



2.3. atalean aurkeztu den moduan, Euskal Herriko Unibertsitateak 65 liburu argitaratu ditu orain arte. Esparru honetan dagoen defizit handia kontuan hartuta, begi-bistakoa da bide beretik aurrera joan behar dela. Hala ere, etorkizunean aurrera eraman behar den argitalpen prozedura aldatu egin beharko da. Izan ere, ahalegin handia egin da aurreko urteetan baina euskaraz argitaratu diren liburuak argitaratzeko ez da irizpide estrategikorik erabili. Une bakoitzean Euskara Batzordeak erabakia hartu du bertan emandako informazioan oinarrituta. Alor honetan dauden gabeziak kontuan harturik, prozedura horrek ez du eragin kaltegarriarik izan, baina gauzak alda daitezke ahalegin handiagoa egiteko aukera badago.

Hona hemen datozen urteotarako ezarri nahi dugun prozedura: Ikastetxe bakoitzeko euskara batzordeak aztertu egin beharko du dagozkion ikasketetarako dauden premiak zeintzuk eta zein eratakoak diren. Premien nondik norakoak finkatzerakoan hurrengo osagaiak aztertuko dira:

- Ikastetxeko lehen zikloetan irakasten diren derrigorrezko irakasgaietarako euskaraz dauden liburuak eta, oro har, ikasmaterialak.
- Gaztelaniaz ikasten duten ikasleek gertu dituzten materialak eta gehien erabiltzen dituzten testu liburuak zeintzuk diren.
- Irakasgai horiek edo horien antzekoak diren gaiak ikasten dituzten ikasleen kopuruak.
- Beste ikastetxetan lerro berekoak izan daitezkeen irakasgaiak zeintzuk diren.
- Ikastetxeko Euskara Batzordearen ustean kontuan hartu beharko litzatekeen beste edozein gai.

Aurreko osagaietan oinarrituta, Euskara Batzordeak datozen bost urteotarako jarduera plangintza bat proposatuko du. Horrela sortutako proposamenak Euskara Institutuko Kontseiluak aztertu eta lehentasunak ezarriko ditu.

Testu liburuen prestakuntzarako gertu egongo diren baliabideak Euskal Herriko Unibertsitateko aurrekontuetatik ateratzeaz gain, kanpo erakundeek eman dezaketen laguntza erabili ahal izango da. Orotara, urteko 45 milioi peseta erabili ahal izango dira, orain erabiltzen dena baino 20 milioi gehiago.

Diru kopuru horren bidez argitaratu ahal izango diren liburuak aldeztu aurretik zenbakitzea zaila da bi arrazoiengatik; a) batetik, liburuak oso ezaugarri eta edukin desberdinetakoak direlako eta b) orain arteko prozedura aldatzeko izango dugun ahalmena zein den ez dakigulako.

Izan ere, garbi dago neurri batean itzulpen lanak egiten jarraitu behar dugula: azken batean ikasle euskaldunek eta erdaldunek maila eta kopuru bereko liburuak erabili beharko lituzkete, hau da, liburu berberak izan beharko lituzkete

eskuragarri. Hala ere, horrek ez du esan nahi Euskal Herriko Unibertsitateko irakasleek prestatutako testu liburuak argitaratu behar ez direnik. Hori guztia Euskara Institutuaren Kontseiluaren menpean egongo da, kontseilu horrek, Institutuaren argitalpen estrategiak finkatu eta erabakiak hartu beharko dituelako, lehenago azaldu den moduan.

Edozein kasutan, bada ikuspegi bat etorkizunari begira aldatu beharko dena. Orain arte, testu liburuen itzulpenak kanpo enpresek edo erakundeek egin dituzte eta horretarako lehiaketa publikoetarako deiak egin dira urtero. Prozedura hori garesti samarra da, enpresek ezartzen dituzten prezioak itzulpengintza profesionalari dagozkionak izan baitira. Unibertsitate mailako testu liburuak beste hizkuntzetara itzultzen direnean, ordea, beste prozedura batera jotzen da. Argialetxeek itzulpen lana unibertsitateko irakasle talde bati ematen diote eta horren trukez ordaintzen dena ez dagokio itzulpengintza profesionalaren prezioari.

II. Plangintza honek egiten duen proposamena bide horretatik doa. Euskal Herriko Unibertsitateko irakasleek testu liburuak itzultzen badituzte bi helburu desberdin beteko lirateke:

- a) Ia edozein unibertsitateko gaiko testu liburua itzultzeko Euskal Herrian egon daitekeen aditu euskaldunik prestatuena eta formazio onena duena, Euskal Herriko Unibertsitateko irakaslea da. Beraz, kalitate berma handieneko testu liburuen itzultzaileak dira Unibertsitateko irakasleak. Hala ere, euskara aldetik gainbegiratzea nahitaezkoa izango da eta horixe da, hain zuzen ere, Euskara Institutuaren erantzunkizunetako bat.
- b) Bide horri jarraituz, itzulpenen kostua beheratzen bada, testu liburu gehiago itzuli ahal izango dira eta dugun aurrekontua modu emankorragoan erabili ahal izango dugu. Helburu horri begira, soldata osagarriak lortzeko aintzat hartuko dira era honetako jardueretan erabilitako denbora eta ahalegina.

Azkenik, zenbait arlotan gerta daiteke itzultzaile egokirik aurkitu ezin izatea edo Unibertsitatetik kanpo daudenak egokienak edo osagarriak izatea. Kasu horietan, akordioak egin daitezke beste erakunde edo enpresekin arlo horietako liburuen koedizioak argitaratzeko, edo aurreko prozedura (lehiaketa publikoarena) erabili ere.



## *5. Ikerkuntzaren Alorrari dagozkion Helburuak*





## ***5.1. Ikerkuntza Taldekideen Arteko Euskararen Erabilera.***

Unibertsitateko jardueren artean, Ikerkuntzarena da hizkuntza plangintza egiteko zailtasun handienak erakusten dituena. Izan ere, eta 2.4. atalean eztabaidatu denez, ikerkuntza taldekideen arteko harremanetarako hizkuntzaren erabilera taldekideen borondate eta gaitasunaren menpean dago. Instituzioak horretan ez du gauza handirik egiterik. Lehenago esan den moduan, beste esparruetan gertatu behar den euskararen erabileraren normalizazioak bere eragina izango du. Bestalde, oso komenigarria izango litzateke gaztelaniaz irakasten duten irakasleak euskalduntzeari ekitea. Eskolak gaztelaniaz ematen jarraitu arren, mesedegarria litzateke elkarrizketetarako maila izatea. Modu honetan, irakasle horiekin ikertuko duten ikasle doktoregai euskaldunek euskara erabiltzeko baldintza egokiagoak izango lituzkete. Hori horrela izanik, Euskara Errektoreordetzak lanpostu egonkorra duten irakasleei euskarazko eskolak ordainduko dizkie. Horretarako, egindako ikastaroen probetxamendu egokia ezinbestekoa izango da.

Ikusi era berean 4.2.3. atalean doktore tesiei buruz esandakoa. Izan ere, doktoregaien tesia euskaratze lanak edo euskaraz idazteak nola edo halako eragina izan dezake ikerkuntza taldekideen arteko euskararen erabileran, hau da, tesia euskaraz idaztea nolabaiteko pizgarri moduko ekintza gerta liteke. Tesiaren prestakuntza lana ikerkuntza taldekideentzat horren garrantzi handikoa izanik, lan horrek eragina izan dezake taldearen hizkuntza ingurunean. Jarduera berberaren ekintza desberdinen arteko elkarrekintzaren ondorioz gerta daiteke aipaturiko eragin hori.

## ***5.2. Doktore Tesiak eta Zientzia eta Jakintza Argitalpenak***

Atal honen bigarren gaia euskaraz idazten diren lanena da. Idazten diren lanen artean, tesia da garrantzizkoena. Tesia euskaraz idazteak garrantzi handia du, bai doktoregaiaren hizkuntza prestakuntzarako (ikusi ere 2.4.4. atala) eta bai goi mailako zientzia eta jakintzaren hizkuntzaren corpuserako ere. Aurreko atal batean ikusi dugunez (2.4.3.), euskaraz aurkezten diren tesien kopurua hazten ari da azken urteotan baina hala ere, oso txikia da oraindik. Ez dago modu argirik hau bezalako ekintzak bultzatzeko edo saritzeko. Izan ere, orain arte dirulaguntzak ematen zaizkie tesia euskaraz idazten duten doktoregaiei eta ez dirudi beste modu batean saritzeko biderik dagoenik. Hori horrela izanik, orain arte hautatutako bideari eutsi behar zaio.

Beste alde batetik, zeregin honetan Euskara Teknikoko irakasleek eman dezaketen aholkularitza laguntzak garrantzi handia izan dezake. Hala ere, laguntza hori eskaintzeko eman behar den denbora eta ahalegina aintzat hartzeko bideak ireki behar dira. Horretarako bi tesitan edo horren parekoak izan daitezkeen 6 tesinatan edo ikasketen amaiera proiektutan laguntza ematearen truke, 3 irakats kredituko jarduera beheratuko zaie hmen esku hartuko duten irakasleei.

Bestalde, asko dira Unibertsitateko Ikastetxe eta Sailetatik sakabanatuta (ia galduta) dauden tesiak. Hizkuntzaren ikuspegitik balio handiko materiala izanik, Euskara Institutua arduratuko da tesi horiek bildu eta bere liburutegian gordetzeaz.

Beste aldetik, zientzia eta jakintza argitalpenei dagokienez, Euskara Errektoreordetzak jarraituko du diruz laguntzen orain laguntzen diren aldizkariak. Era honetako proiektu berrietarako laguntzak bidera daitezke arlo berriak lantzeko baldin badira. Testu liburuei buruz esan den bezala, gai honen inguruko erabakiak Euskara Institutuaren Kontseiluak hartuko ditu.



*6. Administrazio eta Zerbitzuetako Alorrari  
dagozkion Helburuak.*



Aurreko atal batean (3.4.) esan den bezala, Unibertsitateko administrazio eta zerbitzuetako alorrean euskararen erabilera normalizatzeko erabili behar den prozedurak, beste Herri Administrazioetan ezarritakoaren parekoa izan behar du. Horretarako, 1997ko apirilaren 17an Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian (72. zk) argitaraturiko apirilaren 15eko dekretuak (86/1997) finkaturiko irizpideak eta prozedurak erabili behar dira. Horregatik, alor honi dagozkion helburuak, neurri handi batean, aldez aurretik finkatuta daude dekretuan bertan.

Administrazio eta zerbitzuetako alorrari dagokion atal hau bi alde nagusitan banatuta dago. Lehenengo atalean, 86/1997 dekretuaren laburpena aurkeztuko da. Laburpen horretan, Plangintza honi dagozkion ikuspegi garrantzizkoenak aztertuko dira, gure administrazioaren ezaugarri berezietara egokiturik. Bigarren atal nagusian, datozen urteetarako helburuak zehaztuko dira. Horretarako, Unibertsitatean dauden administrazio atalak beren ezaugarrien arabera sailkatu behar dira, batez ere, administratuarekin dituzten harremanak kontuan hartuz. Sailkapen horren ondoren, atal mota bakoitzari egokituko zaizkion derrigortasun datak zehaztuko dira.

## **6.1. 86/1997 Dekretuaren Edukiaren Laburpena.**

Datozen ataletan Dekretuan azaldutako prozedurak dituen zenbait zehaztasunen berri emango dugu.

### **6.1.1. Sarrera.**

Euskal herri administrazioetako hizkuntza normalizaziorako prozesua hezurmani dadin, erakundeek euskararen erabilera normalizatzeko plana onartu eta gauzatu beharko dute. Era berean, lanpostu bakoitzari hizkuntza eskakizuna ezarriko zaio eta, hala dagokionean, derrigortasun data ere.

Administrazioetan dauden lanpostuetako bakoitza betetzeko eta horretan jarduteko euskaraz beharrezko den gaitasun maila kontuan hartuta erabakiko da lanpostu bakoitzari zein hizkuntza eskakizun dagokion. Era berean, lanpostu jakin bati dagokionez hizkuntza eskakizuna derrigorrezkoa ez bada, euskararen ezagutza meritu gisa baloratu beharko da, bai lanpostua betetzerakoan, bai langileak hartzerakoan.

Derrigortasun datatik aurrera hizkuntza eskakizunak egiaztatuta egon behar du. Kasu horretan betebehar hori derrigorrezkoa da dagokion lanpostuan sartzeko eta eta lanpostu hori bete ahal izateko.

Administrazio bakoitzean eta plangintzaldi bakoitzean, derrigorrez bete beharreko indizeak ezarriko du derrigorrezko eskakizunen portzentaia zein den, alegia, lanpostu kopuru osoa aintzat hartuta, zenbat lanpostuk izan behar duten izendatuta derrigorrezko hizkuntza eskakizuna. Euskal Herriko Unibertsitateak, lurralde osoko erakundea izanik, Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde dagokien indizea ezarri behar du. Biztanleria eta Etxebizitza Estatistikan jasotako azken datuen arabera, EHU ezartzekoa den indizea 40,74koa da.

### **6.1.2. Hizkuntza Eskakizunak.**

Hizkuntza eskakizuna euskararen ezagutza mailari dagokio. Lau dira ezarrita dauden maila horiek, eta hizkuntza eskakizun bakoitzari dagokion gaitasun maila ondoren azalduko da:

- 1. hizkuntza eskakizunean, benetako testuak (idatzizkoak zein ahozkoak) ulertzea eskatzen da. Komunikazio gaitasuna, bai ahoz, bai idatziz, mugatua da maila hau baizik gaintitu ez dutenengan. Behe mailako ulermen ahalmena da.
- 2. hizkuntza eskakizunean, oinarrizko maila eskatuko da hizkuntza trebetasun guztietan, idazmenean izan ezik. Alor horretan, behe mailako gaitasuna eskatuko da.
- 3. hizkuntza eskakizunean, oinarrizko maila eskatuko da hizkuntza trebetasun guztietan (ulermena, mintzamina, irakurmena eta idazmena).
- 4. hizkuntza eskakizunean, gaitasun maila jasoak eskatzen dira lau hizkuntza trebetasunetan.

### **6.1.3. Administrazio Atalak.**

Plangintza orokorra borobiltzeko oinarrizko osagaiak, administrazio atalak dira eta atal horiek definitu eta sailkatu egin behar dira. Beranduago, atal horiek izango dira euskalduntze prozesuaren unitate funtzionalak. Izan ere, egingo den sailkapenaren arabera finkatuko dira helburuak eta lehentasunak.

Administrazio atalak hurrengo lau mailetan sailkatuko dira:

- a) Jendaurreko atalak: beren zeregin nagusia, ahoz zein idatziz, administratuarekiko harremanetan oinarrituta daudenak.
- b) Gizarte mailako atalak: herri administrazioaren harreman sareak oso nabarmenak eta bereziki gizarte mailakoak direnak.
- c) Atal orokorrak: beren zeregin nagusia batez ere administrazio barruko alorrean dutenak.



- d) Atal bereziak: bitartekoak eta baliabideak eskaintzen dituzten atalak eta zerbitzuak. Gehienetan, eskuz egindako lanak egiten dituzte, besteak beste, eraikinen mantenimendu eta kontserbazio lanetan, obra, garbiketa eta abarretan edo, bestela, lan teknikoak egiten dituzte instalazio zein ekipoen, laboratorio eta antzekoen mantenimendu eta kontserbazio zereginetan.

#### 6.1.4. Helburuak

Euskal herri administrazioetan euskararen erabilera normalizatuz joan dadin, ondoren aipatuko diren gutxieneko helburuak ezarri dira. Dekretuaren ezarpen esparruan dauden erakundeetako bakoitzak dagozkion gutxieneko helburu horiek lortu beharko ditu, derrigortasun bete beharreko indizeak ahalbidetzen dion heinean:

| Indizea | Atal elebidunak non  | Mikroplanak non            | Euskarazko atalak |
|---------|--|----------------------------|-------------------|
| %0-%25  | Jendaurreko ataletan   | Gizarte mailako ataletan   |                   |
| %25-%45 | Jendaurreko ataletan<br>Gizarte mailako ataletan                               | Izaera orokorreko ataletan |                   |
| %45-%70 | Jendaurreko ataletan<br>Gizarte mailako ataletan<br>Izaera orokorreko ataletan |                            |                   |
| %70-%90 | Jendaurreko ataletan<br>Gizarte mailako ataletan<br>Izaera orokorreko ataletan |                            | Bai               |

#### 6.1.5. Hizkuntza Normalizaziorako Planak

Aurreko atalean (6.1.4.) ezarritako normalizazio helburuak betetzeko erabiliko den hizkuntza politika eta bere nondik norakoak eta jarraibide nagusiak agertuko dira euskararen erabilera normalizatzeko planetan. Bertan, gutxienez, honako hauek jasoko dira:

- Erakundearen oraingo hizkuntza egoera azalduko da, hizkuntza eskakizunen banaketari, derrigortasun datei eta langileen hizkuntza gaitasunaren berri zehatza emanez.
- Sortuko diren euskarazko atalak eta atal elebidunak zehatz-mehatz azaldu behar dira eta atal bakoitzaren barruan gertatuko den hizkuntza eskakizunen eta derrigortasun daten banapena aurkeztu ere.
- Euskarazko atalak eta atal elebidunak aurrera egin dezaten hartuko diren neurriak finkatu behar dira. Era berean, euskara nola erabili eta tratatuko den ondorengo esparruetan azalduko da:

administratuekin eta gainerako erakundeekin gertatzen diren harremanetan, jendaurreko ekitaldietan, argitalpen arloetan, hizkuntz paisaia eta, oro har, aipatutako hizkuntza helburuak betetzeko erakundeak ezartzen dituen jarduera esparruetan.

- d) Kontratazio arloan erabiliko diren neurriak ere finkatu behar dira; batez ere, hirugarren batzuek herritarrekin harreman zuzena duten zerbitzu publikoak eskaintzen dituztenean, Instituzioak berak bete behar lituzkeen hizkuntza baldintzen parekoak berma daitezten.

Normalizazio plana Gobernu Batzarrak onartu behar du eta, horrekin batera, lanpostuen zerrenda berria. Zerrenda horretan hizkuntza eskakizun eta derrigortasun data berriak agertu behar dira. Gobernu Batzarrari aurkeztu baino lehen, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzari bidali behar zaizkio, dagokion txostena egin dezan. Txosten horretan prestatutako planak, euskararen erabileraren normalizazioan duen eragina eta hizkuntzaren alorrean indarrean dauden arauetikiko egokitzapena jasoko ditu.

#### **6.1.6. Derrigortasun Daten Esleipena.**

Derrigortasun datak finkatzeko, hurrengo irizpideak hartuko dira aintzakotzat:

- a) Lanpostuari dagokion jarduera betetzerakoan jendearekin gertatzen den harremana.
- b) Administrazioaren barruan lanpostuaren harreman sarea.
- c) Lanpostuari dagokion zerbitzua edo atala zein motatakoa den eta zein ezaugarri dituen.

Lanpostuak hornidura bat baino gehiago badu eta beren zereginak edo jarduera esparruak ezin bereiz badaitezke, dagokion derrigortasun data ezartzerakoan honako irizpideak izango dira lehentasunezkoak:

- 1.- Hornidura jakin bati dagokion titularrak derrigortasun data jartzeko eskatzen badu, titular horrek izango du lehentasuna gainerako irizpide guztien gainetik.
- 2.- Lanpostu bat betetzeko hautaketa prozesu baten ondorioz lehen plangintzaldia baino lehenago bete diren horniduretan ere lehentasunez ezarriko da derrigortasuna, prozesu horretan euskaraz jakitea ezinbesteko betebeharra izan bada.
- 3.- Lanpostu batek hornidura bat baino gehiago duenean, lanpostuari dagokion hizkuntza eskakizunarekiko euskara maila handiagoa duten titularren horniduretan ezarriko da derrigortasuna.
- 4.- Titularren euskara mailari begiratuta, batetik bestera alde handirik ez badago, orduan adinaren arabera ezarriko da derrigortasuna, hau

da, plangintzaldiaren hasieran lanpostu horretako horniduren titular bakoitzak duen adina kontuan hartuta. Titular gazteenaren horniduran ezarriko da derrigortasuna.

- 5.- Orain arte azaldutako irizpide horiek guztiak batera nahiko ez badira, lanpostu horretan denbora laburrena daramaten titularren dotazioetan ezarriko da derrigortasuna.

Halabeharrezko hizkuntza eskakizunak ezartzeko irizpideek, administrazio bakoitzean dauden lanpostuetan modu zuzen eta proportzionalean ezartzea izango dute helburu, kidego, eskala, maila edo titulazio taldearen arabera bereizitasunik egin gabe.

## **6.2. Euskal Herriko Unibertsitateko Atalen Sailkapena.**

Dekretuaren ardatz nagusiei jarraitzeko asmoarekin, Zerbitzu, Atal nagusi edo Ikastetxe bakoitzeko administrazio atalak taldekatu dira beren izaeraren arabera. Sailkapen hau egiterakoan, Unibertsitatearen administrazioaren bereizitasunak kontuan hartu behar dira. Izan ere, hainbat kasutan ez da erraza izango atal mota ondo definitzea, zeren atal askotan era desberdinetako funtzioak betetzen baitira. Adibidez, Ikastetxeetako idazkaritzetan akademia alorreko jarduerak betetzen dira nagusiki eta horiek gizarte mailako atalei dagozkie. Baina, era berean, idazkaritzak jendaurreko atalak ere badira, ikasleek egiten dituzten gestio gehienak bertan egiten baitituzte. Hori, adibide bat besterik ez da izan, baina hori bezalako egoera asko gertatzen dira Unibertsitateko ataletan.

Ataletan egon daitezkeen lanpostu mota guztiak aintzat hartuz, Unibertsitatearentzat sailkapen eskema berezia prestatu da. Bestalde, era desberdinean sailkatu dira Zerbitzu Orokorreko atalak eta Ikastetxeetakoak. Ondoren aurkeztuko dira bi sailkapen horiek.

### **6.2.1. Zerbitzu Orokorretan.**

- **A** atalak: Hauen barruan, jendaurreko lanpostuak dituzten administrazio atalak sartu dira eta horiekin batera, jendaurreko lanpostuak eta gizarte mailako lanpostuak dituzten administrazio atalak ere.
- **B** atalak: Hauen barruan, gizarte mailako lanpostuak dituzten administrazio atalak daude bakarrik.

- **C** atalak: Izaera orokorreko atalak eta izaera orokorra eta gizarte mailako lanpostuak dituzten atalak sartu dira talde honetan.
- **D** atalak: Izaera bereziko atalak dira hauek. Beren ezaugarriak direla eta, euskalduntze planik ez da ezarri behar atal hauetan.

### **6.2.2. Ikastetxeetan.**

Administrazio atalak sailkatzerakoan, zailtasun berezia sortu da Ikastetxeetako **A** eta **B** atalak desberdindu ahal izateko. Horren arrazoia bakuna da: Ikastetxeetako administrazio gune garrantzizkoenak Idazkaritzak dira. Lehen adierazi den moduan, idazkaritzetan oso era desberdinetako funtzioak betetzen dira, jendaurreko lanpostuak eta barne kudeaketarako lanpostuak batera egon baitaitezke. Hori dela eta, ez da bereizketarik egin A eta B atalen artean eta guztiak **A** hizkia erabilia izendatu dira. Zerbitzu orokorretarako **C** atalak izan direnak, **B** izango dira ikastetxeetan, eta **D** atalak, **C**.

### **6.2.3. Atal Elebidunak eta Euskarazko Atalak.**

Atalen gaurko hizkuntza egoera eta izaera (A, B, C edo D) aintzat hartuz, hainbat atal *Atal Elebiduna* izendatzeko aukera dago. Izendapen horren arabera, euren zereginak bi hizkuntza ofizialetatik edozeinen bidez betetzen dituzten administrazio atalak izango dira Atal Elebidunak.

Atal batek izendapen hori jaso ahal izateko, bertako langileen proportzio esangarri batek ahalmena izan behar du euskara erabiltzeko, bakoitzak bere zeregin nagusien arabera. Bestalde, atalaren buruak edo arduradunak euskalduna behar du izan. Atal hauetan, euskarak zerbitzu hizkuntza izan behar du beste ataletan bezala, baina, horretaz gain, lan hizkuntza ere.

Izendapenak egiteko epeei dagokienez, gaur atal bakoitzak duen egoera aintzat hartu behar da, bai eta plangintzaldi honen amaieran izango duena ere. Geroago azalduko diren arrazoiak direla eta, plangintzaldi honetan ezarriko diren derrigortasun data gehienak 2002 urtean ezarriko direnez, bi datatan egingo dira izendapenak: 1999 (Plangintza hau onartzen den egunean) eta 2002 (Plangintzaren indarraldiaren amaiera). Lehen kasuan, izendapena jasoko duten atalek dagozkien baldintzak betetzen dituzte jada. 2002an izendatuko direnek, ordea, datozen urteotan gertatuko den prozesuaren ondorioz bete beharko dituzte baldintza horiek. 2002 urterako aurreikusi diren izendapenak egin ahal izateko, ezarritako helburuak bete direla egiaztatu beharko da.

Azkenik, badago atal bat Euskal Herriko Unibertsitatean *Euskarazko Atala* izenda daitekeena, Euskara Errektoreordetza hain zuzen ere. Euskara errektoreordetzaren administrazio jarduera gehienak euskaraz egiten dira eta

bertan diren langileak euskaldunak dira. Guztiek egiaztatua dute 3. hizkuntza eskakizuna gutxienez edo eta teknikari gaituak dira.

## **6.3. Derrigortasun datak.**

### **6.3.1. Derrigortasun Datak esleitzeko Irizpideak.**

Derrigortasun datak ezartzerako orduan, hurrengo irizpide eta jarraibideak hartu dira kontuan:

- Atalaren izaera: Oro har, A motako ataletako lanpostuei eman zaie lehentasuna, baina hauen artean, Elebidun izendatuko diren atalei bereziki.
- Hizkuntza eskakizunen arteko oreka bilatu da. Aurreko plangintzaldiaren ondorioz, 3. edo 4. hizkuntza eskakizuna zuten lanpostuetan, derrigortasun daten proportzioa oso apala zen. Beraz, Plangintza honetan 3. edo 4. hizkuntza eskakizuna duten lanpostuen kopuru altuari ezarri zaio.
- Aurrekoaren ondorioz, C eta B motako ataletan ezarri diren derrigortasun data bakarrak (15), 3. eta 4. hizkuntza eskakizuna duten lanpostuei ezarri zaizkie. Gainera, B motako ataletan 2. hizkuntza eskakizuna duten lanpostuetan ere ezarri dira derrigortasun datak, lanpostua betetzen duen langileak egiaztatua duenean.
- Atal baten barruan derrigortasun datak ezartzeko orduan, Dekretuak emandako irizpideak erabili dira: lanpostuaren izaera, langilearen adina, euskara maila eta abar.
- 40 urtetatik gorako langileek betetzen duten lanpostuei ez zaie derrigortasun datarik ezarri, euskalduntze bidean ez badago.
- Aukera egon denean, ez zaio derrigortasun datarik jarri 45 urtetik gorako langileek betetzen dituzten lanpostuei.
- 6 kasutan lehen plangintzaldirako ezarrita zeuden derrigortasun datak kendu egin dira. Batetik, Plangintzaren helburuak zein diren kontuan hartuta eta, bestetik, euskalduntze prozesuan duten eragin eza aintzat harturik, C edo ikastetxetako B motako ataletako eta 45 urtetik gorako langileek beteriko lanpostuetan derrigortasun datak kendu egin dira.

- Azkenik, azpimarratzekoa da behin-behineko langileek beteriko lanpostu asko Unibertsitateak egin duen baina oraindik bideratu ez den Enplegu Eskaintza Publikoaren barruan daudela. Horrek eragina izan du data ezartzeko orduan. Izan ere, Enplegu Eskaintza Publikoan dauden lanpostuen ezaugarriak ezin alda daitezke lanpostuak funtzionarioen bitartez bete arte. Lanpostu horiek urte bateko epean beteko direlakoan, lanpostu horiei ezarri zaien derrigortasun data 2002 urtea izan da.

### 6.3.2. Derrigortasun Daten Banapena.

Ondoren, ezarri diren derrigortasun datak aurkeztuko dira. Horretarako, 2.5. atalean aurkeztutako eredu berbera erabili da. Eredu horretan, atal bakoitzari dagokion izaera sartu da helburu horri begira sortu den zutabe batean. Beraz, A, B, C, eta D atal motak identifikatuta daude. Bestalde, 2.5. atalean emandako informazioaz gain, datozen urteotarako ezarri diren derrigortasun dateei dagozkien zehaztapenak ere aurkeztu dira: funtzionarioek beteriko lanpostuetan ezarritako daten kopurua, behin-behineko langileek beteriko lanpostuetan ezarritakoak, eta abar. Azkenik, izendatuko diren atal elebidunei ikur berezia jarri zaie tauletan. Sartu diren zutabeen izenen kodeen esangura hurrengo laukian aurkeztu da.

KODEA:

|  |
|--|
| HE: Hizkuntza eskakizuna.  |
| a: Hizkuntza eskakizuna egiaztatu duten funtzionarioak   |
| b: Hizkuntza eskakizuna egiaztatu duten behin-behinekoak   |
| c: 45 urtetik gorako funtzionarioek beteriko lanpostuak (derrigortasun data dutenak).  |
| d: Hizkuntza eskakizuna egiaztatu ez duten behin-behinekoak.   |
| Eg: Hizkuntza eskakizuna egiaztatu duten langileak (funtzionarioak eta behin-behinekoak).  |
| Pro: Proposatzen diren derrigortasun daten kopurua   |
| e: funtzionarioek beteriko lanpostuetan.   |
| f: behin-behineko langileek beteriko lanpostuetan.   |
| g: 45 urtetik gorako funtzionarioek beteriko lanpostuetan.   |
| Kop: lanpostu kopurua.   |
| Oharra: azken zutabeen elebidun izendatuko diren atalak azaldu dira Elebi ikurraren bidez. Horren azpian agertzen den urtea da izendapena egingo dena. |

#### Errektorearen bulegoa

| Atala | Mota | Lanpostua | HE | a | b | c | d | Eg | Pro | e | f | g | Kop |
|-------|------|-----------|----|---|---|---|---|----|-----|---|---|---|-----|
|-------|------|-----------|----|---|---|---|---|----|-----|---|---|---|-----|

|         |   |           |   |   |  |  |  |   |   |   |  |  |   |               |
|---------|---|-----------|---|---|--|--|--|---|---|---|--|--|---|---------------|
| Bulegoa | A | Idazkaria | 2 | 1 |  |  |  | 2 | 2 | 2 |  |  | 2 | Elebi<br>1998 |
|---------|---|-----------|---|---|--|--|--|---|---|---|--|--|---|---------------|

#### Idazkaritza Orokorra

| Atala | Mota | Lanpostua | HE | a | b | c | d | Eg | Pro | e | f | g | Kop |
|-------|------|-----------|----|---|---|---|---|----|-----|---|---|---|-----|
|-------|------|-----------|----|---|---|---|---|----|-----|---|---|---|-----|

|         |   |          |   |   |  |  |  |   |   |   |  |  |   |
|---------|---|----------|---|---|--|--|--|---|---|---|--|--|---|
| Bulegoa | B | Idazkari | 2 | 1 |  |  |  | 1 | 1 | 1 |  |  | 1 |
|---------|---|----------|---|---|--|--|--|---|---|---|--|--|---|

|             |   |             |   |   |   |   |  |   |   |   |   |   |   |                       |
|-------------|---|-------------|---|---|---|---|--|---|---|---|---|---|---|-----------------------|
| Idazkaritz. | A | Burua       | 3 |   |   |   |  | 0 | 1 |   | 1 |   | 1 | <b>Elebi<br/>1998</b> |
|             |   | Neg. Buru   | 2 | 1 | 1 |   |  | 2 | 2 | 1 | 1 |   | 2 |                       |
|             |   | Adm. Lag.   | 2 |   | 1 | 1 |  | 1 | 2 |   |   | 2 |   |                       |
|             | C | Artxibo ar. | 2 | 1 |   |   |  | 0 | 1 | 1 |   |   | 1 |                       |

|            |   |           |   |  |   |  |  |   |   |  |   |   |   |
|------------|---|-----------|---|--|---|--|--|---|---|--|---|---|---|
| Aholkular. | B | Aholkula. | 4 |  |   |  |  | 0 | 1 |  |   | 1 | 2 |
|            |   | Teknikari | 3 |  |   |  |  | 0 | 1 |  | 1 |   | 2 |
|            |   | Adm. Lag. | 2 |  | 1 |  |  | 1 | 1 |  | 1 |   | 1 |

### Arabako Campuseko Errektoreordetza eta Gerenteordetza

| Atala | Mota | Lanpostua | HE | a | b | c | d | Eg | Pro | e | f | g | Kop |
|-------|------|-----------|----|---|---|---|---|----|-----|---|---|---|-----|
|-------|------|-----------|----|---|---|---|---|----|-----|---|---|---|-----|

|         |   |           |   |  |  |  |  |   |   |  |  |  |   |
|---------|---|-----------|---|--|--|--|--|---|---|--|--|--|---|
| Bulegoa | B | Idazkaria | 2 |  |  |  |  | 0 | 0 |  |  |  | 2 |
|---------|---|-----------|---|--|--|--|--|---|---|--|--|--|---|

|        |   |           |   |  |  |  |  |   |   |   |   |  |   |
|--------|---|-----------|---|--|--|--|--|---|---|---|---|--|---|
| Campus | A | Adm       | 3 |  |  |  |  | 0 | 0 |   |   |  | 1 |
|        |   | Adm. Tek. | 3 |  |  |  |  | 0 | 1 |   | 1 |  | 1 |
|        |   | Adm. Lag. | 2 |  |  |  |  | 0 | 2 | 1 | 1 |  | 6 |
|        |   | Atezain N | 2 |  |  |  |  | 0 | 0 |   |   |  | 2 |
|        |   | Menpeko   | 1 |  |  |  |  | 0 | 1 |   | 1 |  | 2 |

|        |   |           |   |  |  |  |  |   |   |  |   |  |   |                       |
|--------|---|-----------|---|--|--|--|--|---|---|--|---|--|---|-----------------------|
| Kirola | A | Teknikari | 3 |  |  |  |  | 0 | 1 |  | 1 |  | 1 | <b>Elebi<br/>2002</b> |
|--------|---|-----------|---|--|--|--|--|---|---|--|---|--|---|-----------------------|

### Gipuzkoako Campuseko Errektoreordetza eta Gerenteordetza

| Atala   | Mota | Lanpostua | HE | a | b | c | d | Eg | Pro | e | f | g | Kop | Elebi<br>1998 |   |
|---------|------|-----------|----|---|---|---|---|----|-----|---|---|---|-----|---------------|---|
| Bulegoa | B    | Idazkaria | 2  | 2 |   |   |   | 2  | 2   | 2 |   |   | 2   |               |   |
| Campus  | A    | Adm       | 3  |   |   |   |   | 0  | 0   |   |   |   | 1   |               |   |
|         |      | Adm. Tek. | 3  |   |   |   |   | -  | 1   |   | 1 |   | 1   |               |   |
|         |      | Nego.     | 2  | 1 |   |   |   | 1  | 1   | 1 |   |   |     |               | 1 |
|         |      | Buru      |    |   |   |   |   |    |     |   |   |   |     |               |   |
|         |      | Adm. Lag. | 2  | 1 |   |   | 1 | 1  | 8   | 2 | 6 |   |     | 13            |   |
| Menpeko | 1    |           |    |   |   |   | 2 | 2  | 2   |   |   | 3 |     |               |   |
| Kirola  | A    | Teknikari | 3  |   |   |   |   | 0  | 0   |   |   |   | 1   |               |   |
|         |      | Adm. Lag. | 2  |   |   |   |   | 0  | 1   |   | 1 |   | 1   |               |   |

### Bizkaiko Campuseko Errektoreordetza eta Gerenteordetza

| Atala       | Mota | Lanpostua | HE | a | b | c | d | Eg | Pro | e | f | g | Kop |  |
|-------------|------|-----------|----|---|---|---|---|----|-----|---|---|---|-----|--|
| Bulegoa     | B    | Idazkaria | 2  | 1 |   |   |   | 1  | 1   | 1 |   |   | 2   |  |
| Campus      | A    | Adm       | 3  |   |   |   |   | 0  | 0   |   |   |   | 1   |  |
|             |      | Adm. Tek. | 3  |   |   |   |   | 0  | 1   |   | 1 |   | 1   |  |
|             |      | Adm. Lag. | 2  |   |   |   |   | 0  | 1   |   | 1 |   | 2   |  |
| Kirola      | A    | Teknikari | 3  |   |   | 1 |   | 0  | 1   |   |   | 1 | 2   |  |
|             |      | Arduradu  | 2  |   |   |   |   | 0  | 0   |   |   |   | 1   |  |
|             |      | n         |    |   |   |   |   |    |     |   |   |   |     |  |
|             |      | Adm. Lag. | 2  |   |   |   |   | 1  | 1   |   | 1 |   | 1   |  |
| Instalazio. | 1    |           |    |   |   |   | 0 | 0  |     |   |   | 1 |     |  |

### Euskara Errektoreordetza

| Atala                  | Mota | Lanpostua   | HE | a | b | c | d | Eg | Pro | e | f | g | Kop | Eusk<br>1998 |  |
|------------------------|------|-------------|----|---|---|---|---|----|-----|---|---|---|-----|--------------|--|
| Bulegoa                | A    | Idazkari    | 2  | 1 |   |   |   | 1  | 1   | 1 |   |   | 1   |              |  |
|                        |      | Adm. Lag.   | 2  | 1 |   |   |   | 1  | 1   | 1 |   |   | 1   |              |  |
| Hizkuntza<br>Normaliz. | A    | Teknikari   | 3  |   | 1 |   |   | 1  | 1   |   | 1 |   | 1   |              |  |
|                        |      | Adm. Lag.   | 2  |   | 1 |   |   | 1  | 1   |   | 1 |   | 1   |              |  |
| Gab. Tekn.             | A    | Itzultzaile | TP |   |   |   |   |    |     |   |   |   | 3   |              |  |

### Kultur hedakuntzarako errektoreordetza

| Atala | Mota | Lanpostua | HE | a | b | c | d | Eg | Pro | e | f | g | Kop |
|-------|------|-----------|----|---|---|---|---|----|-----|---|---|---|-----|
|-------|------|-----------|----|---|---|---|---|----|-----|---|---|---|-----|



---

|         |   |            |   |   |   |   |
|---------|---|------------|---|---|---|---|
| Bulegoa | B | Idazkari   | 2 | 0 | 0 | 1 |
|         |   | Administr. | 2 | 0 | 0 | 1 |

### Enpresa-Unibertsitatea Harremanetarako Errektoreordetza

| Atala   | Mota | Lanpostua | HE | a | b | c | d | Eg | Pro | e | f | g | Kop |
|---------|------|-----------|----|---|---|---|---|----|-----|---|---|---|-----|
| Bulegoa | B    | Idazkari  | 2  |   |   |   |   | 0  | 0   |   |   |   | 1   |
|         | B    | Zuzendari | 3  |   |   |   |   | 0  | 0   |   |   |   | 1   |
|         |      | Burua     | 3  |   |   |   |   | 0  | 0   |   |   |   | 1   |
|         |      | Adm. Lag. | 2  |   |   |   |   | 0  | 1   | 1 |   |   | 2   |

### Akademia Antolakuntzarako Errektoreordetza

| Atala   | Mota | Lanpostua | HE | a | b | c | d | Eg | Pro | e | f | g | Kop |
|---------|------|-----------|----|---|---|---|---|----|-----|---|---|---|-----|
| Bulegoa | B    | Idazkaria | 2  |   |   | 1 |   | 0  | 1   |   |   | 1 | 1   |
|         |      | Adm. Lag. | 2  |   |   |   |   | 0  | 0   |   |   |   | 1   |

### Akademia Kudeaketa

| Atala       | Mota | Lanpostua  | HE | a | b | c | d | Eg | Pro | e | f | g | Kop |
|-------------|------|------------|----|---|---|---|---|----|-----|---|---|---|-----|
| Burua       | B    | Zerb.      | 3  |   |   |   |   | 0  | 0   |   |   |   | 1   |
|             |      | Buru.      |    |   |   |   |   |    |     |   |   |   |     |
|             |      | Idazkaria  | 2  |   |   |   |   | 0  | 0   |   |   |   | 1   |
| Ikasleak    | A    | Atal Buru. | 3  |   |   |   |   | 0  | 0   |   |   |   | 1   |
|             |      | Adm. Lag.  | 2  |   |   |   |   | 1  | 1   |   | 1 |   | 1   |
| (Sarrera)   | A    | Neg. Buru  | 2  |   | 1 |   |   | 1  | 1   |   | 1 |   | 1   |
|             |      | Adm. Lag.  | 2  | 1 |   |   |   | 2  | 3   | 1 | 2 |   | 5   |
| (Dirulag)   | A    | Neg. Buru  | 2  |   |   |   |   |    | 0   |   |   |   | 1   |
|             |      | Adm. Lag.  | 2  | 1 |   |   |   | 2  | 2   | 1 | 1 |   | 4   |
| Akad. Kud.  | B    | Atal Buru. | 3  |   |   |   |   | 0  | 1   |   | 1 |   | 1   |
| (Matrikul.) | B    | Neg. Buru  | 2  |   |   |   |   | 0  | 0   |   |   |   | 1   |
|             |      | Adm. Lag.  | 2  |   | 1 |   |   | 0  | 1   |   | 1 |   | 4   |
| (Ikasketa   | B    | Neg. Buru  | 2  |   |   |   |   | 0  | 0   |   |   |   | 1   |
| Plangintz.) |      | Adm. Lag.  | 2  |   |   |   |   | 0  | 0   |   |   |   | 2   |
| Tituluak    |      |            |    |   |   |   |   |    |     |   |   |   |     |
| (Doktoreg.) | A    | Neg. Buru  | 2  |   |   |   |   | 0  | 0   |   |   |   | 1   |
|             |      | Adm. Lag.  | 2  |   |   |   |   | 1  | 1   |   | 1 |   | 2   |
| (Titulu     | B    | Neg. Buru  | 2  | 1 |   |   |   | 1  | 1   | 1 |   |   | 1   |
| arruntak)   |      | Adm. Lag.  | 2  | 1 |   | 1 |   | 1  | 2   | 1 | 1 |   | 2   |
| (Titulu     | B    | Neg. Buru  | 2  | 1 |   |   |   | 1  | 1   | 1 |   |   | 1   |
| propioak)   |      | Adm. Lag.  | 2  |   |   |   |   | 0  | 0   |   |   |   | 1   |

Elebi  
2002

Elebi  
2002

### Irakasleen Errektoreordetza

| Atala   | Mota | Lanpostua | HE | a | b | c | d | Eg | Pro | e | f | g | Kop |
|---------|------|-----------|----|---|---|---|---|----|-----|---|---|---|-----|
| Bulegoa | B    | Idazkaria | 2  | 1 |   |   |   | 1  | 1   |   |   |   | 1   |
| IUB     |      | Idazkaria | 2  |   |   |   |   | 1  | 0   |   |   |   | 1   |

#### Ikerkuntza eta Nazioarteko Harremanetarako Errektoreordetza

| Atala       | Mota | Lanpostua  | HE | a | b | c | d | Eg | Pro | e | f | g | Kop |
|-------------|------|------------|----|---|---|---|---|----|-----|---|---|---|-----|
| Bulegoa     | B    | Idazkari   | 2  |   |   |   |   |    | 0   |   |   |   | 1   |
| Ikerkuntza. | B    | Burua      | 3  |   |   |   |   | 0  | 0   |   |   |   | 1   |
| laguntza    |      | Adm. Lag.  | 2  | 1 | 1 |   |   | 2  | 2   | 1 | 1 |   | 5   |
| Nazioarte.  | A    | Arduradu   | 3  |   |   |   |   | 0  | 0   |   |   |   | 1   |
| Harreman.   |      | n          |    |   |   |   |   |    |     |   |   |   |     |
|             |      | Administr  | 2  | 1 |   |   |   | 1  | 1   | 1 |   |   | 1   |
|             |      | Adm. Lag.  | 2  |   |   | 1 |   | 0  | 1   |   | 1 |   | 2   |
|             |      | Laguntzai. | 2  |   |   |   |   | 0  | 0   |   |   |   | 1   |

#### Irakaskuntza Plangintzarako Errektoreordetza

| Atala   | Mota | Lanpostua | HE | a | b | c | d | Eg | Pro | e | f | g | Kop |
|---------|------|-----------|----|---|---|---|---|----|-----|---|---|---|-----|
| Bulegoa | B    | Idazkaria | 2  |   | 1 |   |   | 1  | 1   |   | 1 |   | 1   |

Elebi  
1998

#### Ekonomia Gaietarako Errektoreordetza

| Atala    | Mota | Lanpostua | HE | a | b | c | d | Eg | Pro | e | f | g | Kop |
|----------|------|-----------|----|---|---|---|---|----|-----|---|---|---|-----|
| Bulegoa  | B    | Idazkaria | 2  |   |   |   |   | 0  | 0   |   |   |   | 1   |
| Barne    | C    | Zerb.     | 3  |   |   |   |   | 0  | 0   |   |   |   | 1   |
|          |      | Buru.     |    |   |   |   |   |    |     |   |   |   |     |
| Kontrola |      | Auditorea | 3  |   |   |   |   | 1  | 1   | 1 |   |   | 2   |
|          |      | Adm. Lag. | 2  |   |   |   |   | 0  | 0   |   |   |   | 1   |

#### Ikasleen Errektoreordetza

| Atala   | Mota | Lanpostua | HE | a | b | c | d | Eg | Pro | e | f | g | Kop |
|---------|------|-----------|----|---|---|---|---|----|-----|---|---|---|-----|
| Bulegoa | A    | Idazkaria | 2  | 1 |   |   |   | 1  | 1   | 1 |   |   | 1   |

Elebi  
1998

## Gerentzia

| Atala | Mota | Lanpostua | HE | a | b | c | d | Eg | Pro | e | f | g | Kop |
|-------|------|-----------|----|---|---|---|---|----|-----|---|---|---|-----|
|-------|------|-----------|----|---|---|---|---|----|-----|---|---|---|-----|

|         |   |           |   |   |  |  |  |   |   |  |  |  |   |
|---------|---|-----------|---|---|--|--|--|---|---|--|--|--|---|
| Bulegoa | B | Idazkaria | 2 | 1 |  |  |  | 1 | 1 |  |  |  | 1 |
|---------|---|-----------|---|---|--|--|--|---|---|--|--|--|---|

|                         |   |             |   |  |  |  |  |   |   |  |  |  |    |
|-------------------------|---|-------------|---|--|--|--|--|---|---|--|--|--|----|
| Arkitektur.             | C | Zerb. Buru. | 3 |  |  |  |  | 0 | 0 |  |  |  | 1  |
| eta Lanak               |   | Aparejad    | 3 |  |  |  |  | 0 | 0 |  |  |  | 1  |
|                         |   | Idazkaria   | 2 |  |  |  |  | 0 | 0 |  |  |  | 1  |
| (Eraikuntz. & Kontser.) | D | Atal Buru   | 3 |  |  |  |  | 0 | 0 |  |  |  | 1  |
|                         |   | Marratz.    | 2 |  |  |  |  | 0 | 0 |  |  |  | 2  |
| (Mantenua)              | D | Arduradun   | 2 |  |  |  |  | 0 | 0 |  |  |  | 1  |
|                         |   | Ofizialak   | 2 |  |  |  |  | 2 | 0 |  |  |  | 17 |
|                         |   | Biltegi Ar  | 2 |  |  |  |  | 0 | 0 |  |  |  | 1  |
|                         |   | Biltegi La. | 2 |  |  |  |  | 0 | 0 |  |  |  | 1  |
|                         |   | Peoiak      | 1 |  |  |  |  | 0 | 0 |  |  |  | 5  |

|                                    |   |                       |   |   |  |   |   |   |   |   |  |  |   |
|------------------------------------|---|-----------------------|---|---|--|---|---|---|---|---|--|--|---|
| Kontrataz. & Erosketak (Erosketa.) | C | Zerb. Buru. Teknikari | 3 |   |  |   |   | 0 | 0 |   |  |  | 1 |
|                                    |   | Adm. Lag.             | 2 | 1 |  |   | 1 | 1 | 1 | 1 |  |  | 1 |
|                                    | C | Atal Buru             | 3 |   |  |   | 1 | 0 | 1 | 1 |  |  | 1 |
|                                    |   | Arduradun             | 2 |   |  | 1 |   | 0 | 0 |   |  |  | 2 |
| (Kontrat.)                         | C | Atal Buru             | 3 |   |  | 1 |   | 0 | 0 |   |  |  | 1 |
|                                    |   | Administr             | 2 | 1 |  |   |   | 2 | 1 | 1 |  |  | 5 |

|                                 |   |            |   |   |  |  |   |   |   |   |   |  |   |
|---------------------------------|---|------------|---|---|--|--|---|---|---|---|---|--|---|
| Pat. & Z.O. (Haurtza.)          | A | Haurtzain  | 2 |   |  |  |   | 0 | 0 |   |   |  | 1 |
| (Patrimoni. Kudeaket.)          | C | Atal Buru. | 3 |   |  |  | 1 | 0 | 1 | 1 |   |  | 1 |
|                                 |   | Teknikari  | 3 |   |  |  |   | 0 | 0 |   |   |  | 1 |
|                                 |   | Arduradun  | 2 | 1 |  |  |   | 1 | 1 | 1 |   |  | 1 |
|                                 |   | Adm. Lag.  | 2 |   |  |  |   | 0 | 0 |   |   |  | 1 |
| Zerb. Orok. (Zerb. Oro.: Posta) | C | Burua      | 2 |   |  |  |   | 0 | 0 |   |   |  | 1 |
|                                 | C | Arduradun  | 2 |   |  |  |   | 0 | 0 |   |   |  | 1 |
|                                 |   | Laguntzai. | 1 |   |  |  |   | 0 | 0 |   |   |  | 2 |
| (Zerb. Oro.: Atezaintz.)        | A | Atezain N  | 2 | 1 |  |  |   | 1 | 1 | 1 | 1 |  | 2 |
### Magisterioko Unibertsitate Eskola- Bilbo

| Atala                  | Mota | Lanpostua  | HE | a | b | c | d | Eg | Pro | e | f | g | Kop |                       |
|------------------------|------|------------|----|---|---|---|---|----|-----|---|---|---|-----|-----------------------|
| Bulegoa                | B    | Idazkari   | 2  | 1 |   |   |   | 1  | 1   | 1 |   |   | 1   |                       |
| Ikusentzun<br>Mantenua | A    | Adm        | 3  |   |   |   |   | 0  | 0   |   |   |   | 1   | <b>Elebi<br/>2002</b> |
|                        | A    | Neg. Buru  | 2  |   |   |   |   | 0  | 1   | 1 |   |   | 1   |                       |
|                        |      | Adm. Lag.  | 2  |   |   |   |   | 1  | 1   | 1 |   |   | 2   |                       |
|                        | A    | Atezain N  | 2  | 1 |   |   |   | 1  | 1   | 1 |   |   | 2   |                       |
|                        |      | Menpeko    | 1  | 2 |   |   | 1 | 2  | 3   | 2 | 1 |   | 4   |                       |
|                        | A    | Telefonari | 2  | 1 |   |   |   | 1  | 1   | 1 |   |   | 2   |                       |
|                        | B    | Ofiziala   | 2  | 1 |   |   |   | 1  | 1   | 1 |   |   | 1   |                       |
|                        | C    |            | 2  |   |   |   |   | 0  | 0   |   |   |   | 1   |                       |

---

|             |   |           |   |   |   |   |   |   |                       |
|-------------|---|-----------|---|---|---|---|---|---|-----------------------|
| Liburutegia | A | Arduradun | 3 | 1 | 1 | 1 | 1 | 1 | <b>Elebi<br/>1998</b> |
|             |   | Adm. Lag. | 2 | 1 | 1 | 1 | 1 | 1 |                       |
| Sailak      | C | Idazkari  | 2 | 2 | 2 | 2 | 2 | 2 |                       |

### Lan Harremanetako Unibertsitate Eskola- Leioa

| Atala      | Mota | Lanpostua | HE | a | b | c | d | Eg | Pro | e | f | g | Kop |
|------------|------|-----------|----|---|---|---|---|----|-----|---|---|---|-----|
| Bulegoa    | B    | Idazkari  | 2  | 1 |   |   |   | 1  | 1   | 1 |   |   | 1   |
| Idazkaritz | A    | Adm       | 3  |   |   |   |   | 0  | 0   |   |   |   | 1   |
|            | A    | Neg. Buru | 2  |   |   |   |   | 0  | 0   |   |   |   | 1   |
|            | A    | Adm. Lag. | 2  |   | 1 |   | 1 | 1  | 2   |   | 2 |   | 3   |
| Atezaintza | A    | Atezain N | 2  |   |   |   |   | 0  | 1   |   | 1 |   | 2   |

### Industria Ingeniaritza Teknikoko Unibertsitate Eskola- Bilbao

| Atala      | Mota | Lanpostua  | HE | a | b | c | d | Eg | Pro | e | f | g | Kop |
|------------|------|------------|----|---|---|---|---|----|-----|---|---|---|-----|
| Bulegoa    | B    | Idazkari   | 2  |   |   |   |   | 1  | 0   |   |   |   | 1   |
| Idazkaritz | A    | Adm        | 3  |   |   |   |   | 1  | 0   |   |   |   | 1   |
|            | A    | Neg. Buru  | 2  |   |   |   | 1 | 0  | 1   |   | 1 |   | 1   |
|            |      | Adm. Lag.  | 2  |   |   | 1 |   | 0  | 1   |   |   | 1 | 2   |
| Atezaintza | A    | Atezain N  | 2  | 1 | 1 |   |   | 2  | 2   | 1 | 1 |   | 2   |
|            |      | Menpeko    | 1  | 1 |   | 1 |   | 1  | 2   | 1 |   | 1 | 6   |
| Kopiagintz | A    | Telefonari | 2  | 1 |   |   |   | 1  | 1   |   |   |   | 2   |
|            | A    | Arduradun  | 2  |   |   |   |   | 0  | 0   |   |   |   | 1   |
| Biblioteka | A    | Arduradun  | 3  |   |   |   |   | 0  | 0   |   |   |   | 1   |
|            |      | Adm. Lag.  | 2  | 1 |   |   |   | 1  | 1   | 1 |   |   | 1   |
| Sailak     | B    | Lantegi M  | 3  |   |   |   |   | 0  | 0   |   |   |   | 1   |

### Meatze Ingeniaritza Teknikoko Unibertsitate Eskola

| Atala      | Mota | Lanpostua  | HE | a | b | c | d | Eg | Pro | e | f | g | Kop |
|------------|------|------------|----|---|---|---|---|----|-----|---|---|---|-----|
| Bulegoa    | B    | Idazkari   | 2  |   |   |   |   | 0  | 0   |   |   |   | 1   |
| Idazkaritz | A    | Adm        | 3  |   |   |   |   | 0  | 0   |   |   |   | 1   |
|            | A    | Neg. Buru  | 2  |   | 1 |   |   | 1  | 1   |   | 1 |   | 1   |
|            | A    | Adm. Lag.  | 2  |   |   |   | 1 | 0  | 1   |   | 1 |   | 2   |
| Atezaintza | A    | Atezain N  | 2  |   |   | 1 |   | 0  | 1   |   |   | 1 | 2   |
|            |      | Menpeko    | 1  |   |   |   |   | 0  | 1   |   | 1 |   | 2   |
| Telefonoa  | A    | Telefonari | 2  | 1 |   |   |   | 1  | 1   |   |   |   | 1   |
| Biblioteka | A    | Arduradun  | 3  |   |   |   |   | 0  | 0   |   |   |   | 1   |
|            |      |            |    |   |   |   |   |    |     |   |   |   |     |



|        |   |             |  |   |   |   |
|--------|---|-------------|--|---|---|---|
| Sailak | B | Lantegi M 3 |  | 0 | 0 | 1 |
|--------|---|-------------|--|---|---|---|

## Hezkuntza Zientzien Institutua

| Atala       | Mota | Lanpostua | HE | a | b | c | d | Eg | Pro | e | f | g | Kop |
|-------------|------|-----------|----|---|---|---|---|----|-----|---|---|---|-----|
| Bulegoa     | B    | Idazkari  | 2  |   |   |   |   | 0  | 0   |   |   |   | 1   |
|             | A    | Adm       | 3  |   |   |   |   | 0  | 0   |   |   |   | 1   |
| Idazkaritz  | A    | Adm. Lag. | 2  |   |   | 1 |   | 2  | 3   |   | 2 | 1 | 5   |
| Atezaintza  | A    | Atezain N | 2  |   |   |   |   | 0  | 0   |   |   |   | 1   |
| Ikusentzun. | B    | Teknikari | 2  |   |   |   |   | 0  | 0   |   |   |   | 2   |

### 6.3.3. Derrigortasun Data Gainditua duten Lanpostua betetzen duten Behin-behineko Funtzionarioak.

Dekretuan esandakoaren arabera, derrigortasun data gainditua duen lanpostua betetzen duen langilea, behartuta dago lanpostuari dagokion hizkuntza eskakizuna egiaztatzeko, lan harreman mota zein den kontuan hartu gabe. Unibertitatean orain arte erabili den prozedura, ordea, bestelakoa izan da, zeren, behin-behineko langileak salbuetsita geratu baitira. Ikuspegi honi dagokionez, Dekretua argi samarra da eta ez du inoiz desberdinketarik egiten funtzionario eta behin-behinekoen artean. Beraz, hemendik aurrera, eta plangintza honen indarraldian gutxienez, behin-behineko langileek egiaztatu behar izango dute betetzen duten lanpostuari dagokion hizkuntza eskakizuna, derrigortasun data ezarria badute.

Hala ere, behin-behineko langileek ez dute aukerarik izan lanorduetan euskarazko eskoletara joateko 1997 arte. Gaur, bestalde, HAAEk antolatzen dituen ikastaroetan parte hartzeko eskubidea dute behin-behineko funtzionarioek eta horrelaxe dago jasota HAAEk eta EHUK 1998ko ekainean sinatu zuten hitzarmenean. Beraz, euskalduntzeko bidea irekita dago lanpostu bat betetzen duten administrazio eta zerbitzuetako langile guztientzat.

1997 arte lanorduetan euskarazko eskoletara joateko aukerarik egon ez denez, behin-behineko langileei aukera eman behar zaie datozen urteetan behar duten euskara gaitasuna lortzeko. Beraz, hizkuntza eskakizuna egiaztatzeko epea luzatu egingo da langile horientzat. Luzapen hori bi urtekoa izango da Plangintza hau Gobernu Batzarrak onartzen duen egunetik aurrera. Gainera, kasuren batean bi urteko luzapen hori nahiko izango ez balitz, langileen egoera berriz aztertuko da eta banakako plangintza bat egituratuko da hizkuntza eskakizuna egiaztatu ahal izateko. Kasu horiek aztertzerakoan, erabilitako ordu kreditua eta kreditu horren aprobetxamendua aintzat hartuko da epea luzatuko den ala ez erabakitzeko. Hauek bezalako kasuak, AZPkoen Euskalduntze Batzordean aztertuko dira Euskara Errektoreordetzak eta Gerentziak azken erabakia hartu baino lehen.

### 6.3.4. Lanpostuen Zerrendan ez dauden Langileak.

Dekretuaren bosgarren xedapen gehigarriak dioenez, aldi baterako lanak egiteko lan kontratuko langileak hartzeko egiten diren deialdietan aintzat hartuko da euskara ezagutzea.

Orain arte Unibertsitatean egin diren era honetako kontratuetan ez da ia inoiz horrelako eskakizunik egin. Lan mota hauen kopuru altua dela kausa (lanpostu guztien % 10etik hurbil dago), AZPkoen benetako euskalduntze maila baxua da. Hori horrela izanik, egokia izan daiteke mota honetako lanpostuak hizkuntza plangintzaren barruan sartzea.

Horretarako, Dekretuaren bosgarren xedapen gehigarriak zehazten du jarraitu behar den prozedura. Labur esanda, euskara eskakizun edo meritua gisa eskatu behar denean, lehiaketa bakoitzerako txosten bat prestatu eta Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzara bidali behar da, onartua izan dadin. Prozedura hau luze samarra da eta era honetako lanpostuak asko dira eta ziurraski asko izango dira etorkizunean. Horregatik, egokiagoa gerta daiteke egingo diren lehiaketa guztietarako prozedura standard bat ezartzea eta prozedura hori horretarako aldeko txostena Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzari eskatzea.

Plangintza honen irizpide nagusietan oinarrituta dago aurrerantzean erabil daitekeen prozedura. Beraz, atalen sailkapena mantendurik, sortuko diren lanpostu berrietarako euskara ezagutzea hurrengo proportzioetan eskatuko da eskakizun gisa:

#### Zerbitzu Orokorretan:

- |   |
|---|
| <ul style="list-style-type: none"><li>• A ataletarako lanpostuetan: % 100a.</li><li>• B ataletarako lanpostuetan: % 75a.</li><li>• C ataletarako lanpostuetan: % 50a.</li></ul> |
|---|

#### Ikastetxeetan:

- |  |
|--|
| <ul style="list-style-type: none"><li>• A ataletarako lanpostuetan: % 100a.</li><li>• B ataletarako lanpostuetan: % 50a.</li></ul> |
|--|

Goian azaldutako portzentaiak sortuko diren lanpostu berriei ezartzekoak dira eta orain diren lanpostuetan ez da euskara ezagutzea eskatuko.

### 6.3.5. Lan Poltsetan dauden Langileak.

Euskal Herriko Unibertsitatean antolatuta dauden lan poltsak bakarrak dira eskala bakoitzerako. Horrek esan nahi du poltsak ez daudela antolatuta euskararen ezagutza mailaren arabera. Horregatik, derrigortasuna duen lanpostu bat hutsik

geratu denean, dagokion hizkuntza eskakizuna egiaztatua ez duten langileak sartu ahal izan dira.

86/1997 dekretua argitaratu ondoren eragozpen hau ondo gaindi daiteke. Izan ere, herri administrazioetan lan egiten duen edozein langilek aukera izango du hizkuntza eskakizuna egiaztatu ahal izateko, duen lan harreman mota kontuan hartu barik. Horretarako, Euskal Herriko Unibertsitateak hurrengo bi aukerak ditu:

- a) 32.b artikuluan aurreikusitakoaren antzerako deialdi berezia egin edo
- b) HAEEK egiten dituen ohiko deialdietara aurkeztearen aldeko kanpaina egin poltsetan diren langileentzat.

Izan ere, II. Plangintza hau onartu eta bi urte iragan ondoren, derrigortasuna duten lanpostuetan ezin izango da sartu eskakizuna egiaztatuta ez duen langilerik, ez eta behin-behineko moduan bada ere. Bi urteko luzapen hori mantenduko da behin-behineko langileen kasuarekin parekotasuna mantentzeko asmoarekin.

## **6.4. Administrazio eta Zerbitzuetako Langileen Hizkuntza Prestakuntza.**

### **6.4.1. Euskalduntzea.**

Beste Herri Administrazioetan bezala, administrazio eta zerbitzuetako langileen euskalduntzea, euskarazko eskoletara joateko langileek duten ahalmenaren menpean dago. Horretarako, Unibertsitateko aurrekontuetan 30 langileren liberazioa dago aurreikusita. Horrez gain, 200 langile inguru daude baimenduta egunero bi lanorduko euskarazko eskoletara joateko. Euskarazko eskolak HAEEK ordaintzen ditu, bai askapenaren bitartez hartzen direnak eta bai eguneko bi orduko ikastaroetan hartzen direnak ere. Horretarako, EHUK eta HAEEK hitzarmen bat sinatu dute.

Aipaturiko ikastaroen bitartez, urteko 50 langile inguruk egiaztatzen dute hizkuntza eskakizunen bat eta beren lanpostuei dagokien hizkuntza eskakizuna, 35-40 langile inguruk egiaztatzen dute. Hala ere, eta Plangintza honen helburuen bideragarritasuna bermatzeko asmoz, lehenago proposatu diren derrigoratsun daten egiaztapenerako beharrezkoak izango diren euskarazko eskola orduak zenbatu dira.

Kalkulua banan-banan egin da eta horrela, erabili beharreko baliabideak eta euskara eskoletara joan ahal izateko baimenen kopurua aurreikusi ahal izan ditugu. Kalkuluak egiteko HAEEK erabiltzen dituen baliokidetzen taulak erabili

dira. Baliokidetza horien bitartez, hizkuntza eskakizun bakoitza egiaztatu ahal izateko egin behar diren eskola orduak finkatuta daude. Gainera, beste zuzenketa koefizienteak erabili dira, ikaste prozesuan faktore desberdinek izan dezaketen eragina aintzat hartzeko.

Kalkulu horien emaitzak ondoren aurkeztuko dira. Eskola orduen kopuruak aurkeztu beharrean, ikasketa moduluak erabili dira. Horrela, orotara beharko liratekeen eguneko 2 orduko ikastaroen kopurua kalkulatu da edo, horren ordean, eguneko 5 orduko ikastaroena. Ikastaroen iraupena lau hilabetekoa denez, gaurtik plangintzaldiaren amaiera arte, 7 lauhilabeteko ikastaroak egiteko aukera egongo da.

Derrigortasun data duten langileek betetzen dituzten lanpostuei dagokien hizkuntza eskakizuna egiaztatu ahal izateko egin behar diren euskara ikastaroak:

**a) Orotara:**

| Atal Mota  | 2 orduko ikastaro kopurua | 5 orduko ikastaro kopurua |
|------------|---------------------------|---------------------------|
| Elebidunak | 120                       | 48                        |
| A          | 210                       | 76                        |
| B          | 72                        | 26                        |
| C          | 34                        | 12                        |
| Guztira    | 436                       | 162                       |

**b) Derrigortasun dataren arabera:**

**I. Plangintzaldiari dagozkion derrigortasun datak**

| Atal Mota  | 2 orduko ikastaro kopurua | 5 orduko ikastaro kopurua |
|------------|---------------------------|---------------------------|
| Elebidunak | 53                        | 20                        |
| A          | 136                       | 49                        |
| B          | 53                        | 18                        |
| C          | 34                        | 12                        |
| Guztira    | 266                       | 95                        |

**2000/12/31 data dutenak**

| Atal Mota  | 2 orduko ikastaro kopurua | 5 orduko ikastaro kopurua |
|------------|---------------------------|---------------------------|
| Elebidunak | 6                         | 2                         |
| A          | 10                        | 4                         |
| B          | 3                         | 1                         |
| Guztira    | 19                        | 7                         |

**2002/12/31 data dutenak**

| Atal Mota  | 2 orduko ikastaro kopurua | 5 orduko ikastaro kopurua |
|------------|---------------------------|---------------------------|
| Elebidunak | 64                        | 23                        |
| A          | 61                        | 26                        |
| B          | 16                        | 7                         |
| Guztira    | 141                       | 56                        |

**c) Hizkuntza eskakizunaren arabera:**

**1. hizkuntza eskakizuna**

| Atal Mota  | 2 orduko ikastaro kopurua | 5 orduko ikastaro kopurua |
|------------|---------------------------|---------------------------|
| Elebidunak | 5                         | 3                         |
| A          | 47                        | 17                        |
| Guztira    | 52                        | 20                        |

**2. hizkuntza eskakizuna**

| Atal Mota  | 2 orduko ikastaro kopurua | 5 orduko ikastaro kopurua |
|------------|---------------------------|---------------------------|
| Elebidunak | 75                        | 31                        |
| A          | 155                       | 56                        |
| B          | 53                        | 18                        |
| C          | 18                        | 6                         |
| Guztira    | 303                       | 111                       |

**3. hizkuntza eskakizuna**

| Atal Mota  | 2 orduko ikastaro kopurua | 5 orduko ikastaro kopurua |
|------------|---------------------------|---------------------------|
| Elebidunak | 38                        | 14                        |
| A          | 8                         | 3                         |
| B          | 19                        | 8                         |
| C          | 16                        | 6                         |
| Guztira    | 81                        | 31                        |

Ikus daitekeenez, orain arte gertu izan ditugun baliabideak nahiko dira taula hauetan aurreikusitako beharrei aurre egin izateko. Hala ere, eskaerak egonez gero, 5 orduko ikastaroetara joateko askapenen kopurua ez da beheratuko. Horrela, derrigortasun data ez duten langileek aukera izango dute euskara eskoletara joateko. Era horretan, euskaraz eskain daitekeen zerbitzua sendotu egingo da eta hurrengo plangintzaldiari begira aurrerapausu esangarriak eman ahal izango ditugu.

Euskara ikasteko baimenak emateko irizpideak plangintzaren helburu nagusiekin lotuta daude eta honako hauek dira, lehentasun mailaren arabera jarriarik:

1. Lanpostuaren hizkuntza eskakizunaren derrigortasuna. Derrigortasun data izango duten lanpostuak betetzen dituzten langileek lehentasuna izango dute.

2. Langilearen atal mota. Lehentasuna atal elebidunetan dauden langileek izango dute. Gero, lehentasunak hurrenkera honen arabera: A motako ataletan daudenak, B motako ataletakoak, C motakoak eta azkenik D motako ataletan diren langileak.
3. Funtzionarioek edo lan kontratu finkoa duten langileek lehentasuna izango dute behin-behineko langileen aurrean.

Eguneko bi orduko euskara eskoletara joan ahal izateko galtzen den lan ahalmenarena da atal honetan aztertu behar den beste kontu bat. Hainbat atal zein zerbitzutan lan ordu asko galtzen dira euskara ikastaro horiek eraginda, eta galera hori handiagoa da derrigortasun data gehiago duten ataletan. Eguneko bost orduko euskara ikastaroetan parte hartzeko behar-beharrezkoak diren ordezkapenez gain, beste lanpostu batzuk hornituko dira, lan orduen galera hori ahal den neurrian apaltzeko. Aldi baterako lanak egiteko lan kontratuen bitartez burutuko dira horniketara horiek eta lanpostu kopurua galdutako orduetarako egokituko zaie, bi orduko lau baimeneko lanpostu bat sortzen. Atalen arduradunek behar diren horniketak eskatuko dizkiote Pertsonalaren Gerenteordetzari. Euskara errektoreordearen txostena aintzat hartu ondoren, Gerenteordetzak eskariak aztertuko ditu eta dagokion erabakia hartu ere.

#### **6.4.2. Prestakuntza Etengabea.**

Administrazio eta zerbitzuetako langileei aukera emango zaie prestakuntza etengaberako ikastaroetan parte hartzeko. Helburu horri begira, ikastaro bereziak antolatuko dira edo HAAEk eskainitako prestakuntza ikastaroetara joateko erraztasunak emango zaizkie parte hartu nahi duten langileei. Euskaraz zerbitzua emateko edo eta lan egiteko prestakuntza berezia jasotzea da ikastaro hauen helburua. Beraz, ikastaroen edukia, Unibertsitateko lanpostuetan erabili behar den hizkuntzaz trebatzeari egokitu behar zaio.

Bestalde, langileen kopuru esangarri batek aspaldian egiaztatu du bere lanpostuari dagokion hizkuntza eskakizuna, baina hizkuntza inguruarekin zerikusia duten arazoak direla eta, aukera gutxi izan dute euskara normaltasunez erabiltzeko. Egoera horretan dauden langileei aukera emango zaie euskararen ezagutza eta erabilera gaurkotzeko ikastaroetan parte hartzeko.

Azkenik, *Prestakuntza, Hobekuntza eta Birziklaiarako Batzordeak* antolatzen dituen ikastaroen eskaintzan, euskara erabili beharko da prestakuntza hizkuntza gisa. Horrek esan nahi du ikastaroak euskaraz egiteko eskaintza ugarituz joango dela arian-arian, horrela nahi duten langileek era horretako prestakuntza jasotzeko aukera izan dezaten.



## **6.5. Baliabide Informatikoak.**

Programa informatikoen alorrean euskarazko bertsioak agertzen hasi direnez, Unibertsitateak aukera emango die AZPko langile guztiei euskarazko bertsioa erabiltzeko. Bestalde, sistemak edo aplikazioak berriztatzen direnean, derrigortasun data duten lanpostuetan erabiltzen diren ordenagailuetan euskarazko bertsioak ezarriko dira.

## **6.6. Erabilera Planak.**

Dekretuak aurreikusitakoaren arabera, administrazio ataletarako euskararen erabilera planak izango dira hizkuntza plangintzaren garrantzizko osagarriak. Orain arte aurkeztutako zenbait kontu (hizkuntza prestakuntza, baliabide informatikoak, eta abar) eta hurrengo atal batean (7. atalean) aurkeztuko diren beste batzuk, erabilera planen osagarri gisa har daitezke. Hala ere, benetako erabilera plan batek beste elementu batzuk izan behar ditu orain arte aztertu ez direnak. Adibidez, atalen barruko zein atalen arteko komunikaziorako jarraibideak, hizkuntza dinamizazio ekintzak eta beste ikuspegi batzuk aztertu beharko lirateke erabilera planak modu egokian egituratzeko eta abian jartzeko. Izan ere, Atal Elebidun izendatuko diren administrazio ataletan horrelako planak abian jartzeak, II. Plangintza honen helburu nagusietariko bat izan behar du.

Hala ere, Euskal Herriko Unibertsitateak gaur ez du euskararen erabilera planak egituratzeko eta abian jartzeko beharrezkoak izango liratekeen giza eta bestelako baliabiderik. Bestalde, hori bezalako jarduera ez da epe luzean mantendu behar den horietariko bat eta, beraz, ez litzateke egokia izango lanpostu bereziak sortzea helburu hori betetzeko. Egoera honen aurrean, arlo honetan aritzen den kanpo enpresa bat kontratatzea izango da erabiliko den prozedura. Izan ere, prozedura berbera da hainbat enpresa (CAF, MCC Zerbitzuak, eta beste) eta udaletxe (Bilboko, adibidez) erabili dutena. Kanpo enpresa horrek erabilera planen egituraketa teknikoa egingo du, baina lan horren ondorioz proposatuko diren ekintza eta hartuko diren neurrien ardura, Euskara Errektoreordetzarena izango da.

## **6.7. Unibertsitatean Zerbitzua ematen duten Kanpo Enpresa edo Erakundeen Trataera.**

Unibertsitatean eskaintzen diren zerbitzu asko, Unibertsitateko langileek ematen dituzten zerbitzuen parekoak dira baina kanpo enpresa zein erakundeak dira horretan aritzen direnak. Dekretuak zerbitzu horietarako aurreikusi duena hauxe da: langileen euskararen ezagutzak administrazioaren pareko langileek egiaztatu behar dutenaren parekoa izan behar du.

Kanpo enpresa batek Unibertsitatean bi lan mota egiten ditu: eraikuntza edo mantenu lanak batetik eta jendeaurreko lanak bestetik (ikasle, AZPko langile zein irakasleen aurrean). Hauen artean, liburudendak, informatika dendak, tabernak, kopiagintza, eta abar daude. Lehenengoen kasuan, gure D edo C ataletan egiten diren jarduerak egiten dira eta, beraz, horien parekoak izango lirateke. Bigarren taldekoak, aldiz, A atal bezalakoak dira.

Jendaurrean diharduten enpresek, administrazioak berak euskaraz ematen duen zerbitzuaren parekoa eman beharko lukete. Horretarako, Plangintzaldi honetan zehar zerbitzu horiek emateko egingo diren lehiaketen baldintzen artean euskararen tratamendua sartu beharko da. Euskara Errektoreordetzak txosten bat prestatuko du kasu bakoitzean, eta euskararen erabilerari dagokionez enpresa horiek hartu beharko dituzten neurriak zeintzuk izango diren zehaztuko da txostenean.

Txostena hurrengo puntuetan oinarrituko da, gutxienez:

1. Enpresak ematen duen zerbitzua bi hizkuntza ofizialetan eman beharra.
2. Iragarkiak, inprimakiak, oharrak, eta abarreko idatzizko komunikazioak euskaraz zein gaztelaniaz eman beharko dira.
3. Langileen euskara ezagutzak, Unibertsitateko A ataletan gertatzen denaren parekoa izan behar du. Euskara errektoreordetzak finkatu beharko du langile euskaldunen kopurua.





*7. Eremu Desberdinetarako Euskararen Erabilera  
Irizpideak.*



## ***7.1.Unibertsitatearen Irudia eta Argitalpen Ofizialak.***

### **7.1.1. Irudia.**

Unibertsitatearen nortasun korporatiboaren adierazle eta elementu grafiko guztiak elebidunak izango dira. Arau honen eraginak barne zein kanpo eremuei dagozkie. Beraz, komunikabideetan argitaratzen diren iragarki ofizial guztiek elebidun izan behar dute.

Iragarkietan eta beste edozein adierazletan, euskararen trataera *Erakunde Nortasunaren Eskuliburuan* finkatutako moduaren arabera egingo da.

### **7.1.2. Argitalpen Ofizialak.**

Unibertsitateko errektoreordetza, zerbitzu, atal edo Ikastetxeek argitaratutako dokumentu edo txosten ofizial guztiak elebidunak izango dira. Hauen artean ditugu barne dokumentuak edo txostenak, Unibertsitatekanporako informazioa ematen dutenak eta, bereziki, ikasleei eskaintzen zaizkienak.

Adibide gisa, ondoko dokumentu eta txosten motak dira elebidun argitaratu behar direnak:

- a) Barne dokumentuak eta informazioa: *Irakasleen Kudeaketarako Ibiltorria, Irakats Eskaintza eta Irakats Betebeharrak zehazteko Prozedura Bateratua,Aukera Askeko Ibiltorria* edo *Kudeaketa Txostena* bera.
- b) Kanporako informazioa: Unibertsitateari buruzko informazio orokorra ematen duen edozein liburu edo liburuxka, Zientzia eta Teknologia Eskaintzaren berri ematen den argitalpenak edo beste edozein informazio dokumentu.
- c) Ikasleentzako informazioa: *Ikastetxeen Gidaliburuak*, Kirol jarduera eta eskaintzari buruzko liburuxkak, Nazioarteko Programei buruzko informazioa ematen duten dokumentuak eta abar.

## ***7.2. Barne Harremanetan.***

Ezaguna denez, hizkuntzen arteko desoreka handia dagoen kasuetan, hizkuntza gutxituaren erabilera ez dago bere ezagutza mailaren menpean bakarrik. Gure kasuan euskara normaltasunez erabili ahal izateko hizkuntza ezagutzea ezinbestekoa bada ere, ez da nahikoa. Euskararen erabilera normala helburua izanik, era desberdinetako neurriak har daitezke helburu hori ahal den

neurrian lortzeko. Dokumentu honen beste zenbait atalatan adierazi den moduan, gizabanakoen arteko hizkuntzaren erabilera ez dago arautzerik, baina zenbait jarraibide ematea baliagarri gerta daiteke. Ondoren, jarraibide horietako batzuk aurkeztuko dira.

Unibertsitatean lan egiten edo ikasten duten lagunen arteko ahozko zein idatzizko komunikazioetan euskararen erabilera sustatuko da. Horretarako, langile elebidunei gomendioa luzatzen zaie edozein motako komunikaziotan, ahal duen neurrian, euskara erabiltzeko.

Ezezagunen arteko telefono bidezko euskarazko barne komunikazioa errazteko neurriak hartuko dira. Unibertsitateak argitaratzen dituen telefono gidetan adieraziko da langileen euskara gaitasuna. Horrela, lanpostu elebiduna betetzen duten irakasleen telefono zenbakiaren ondoan ikur baten bidez adieraziko da elebidun izaera. Modu berean, 2., 3. edo 4. hizkuntza eskakizuna egiaztatu duten administrazio eta zerbitzuetako langileen telefonoaren ondoan ikur berbera erabiliko da euskara gaitasuna adierazteko.

Idatzizko komunikazioei dagokienez, inprimaki, eske idazki eta bestelako idazki ofizialak euskaraz eta gaztelaniaz egongo dira.

## **7.3. Web Orria.**

### **7.3.1. Eskainitako Informazio Orokorra.**

Euskal Herriko Unibertsitateak berregituratu berri du bere web orria. Bertan, era eta maila askotako informazioa eskaintzen da. Web orriaren egituraketaren ikuspegi garrantzitsu bat hizkuntzarena da. Izan ere, gaur duen egituraren arabera, hiru dira informazioa jasotzeko aukera daitezkeen hizkuntzak: gaztelania, ingelesa eta euskara. Hizkuntzaren aukera, posibilitate moduan agertzen bada ere, ez da eraginkorra kasu guztietan.

Datozeen urteei begira, Unibertsitateko Web orrian ematen den informazio instituzional guztia euskaraz eskainiko da, horretarako beharrezkoak izango diren giza eta bestelako baliabideak erabiliz.

Jarraian, web orriaren antolaketa orokorra azalduko da. Beraz, interneten bidez ondoko informazioa zabaltzen dugunean, kontuan hartu behar da euskaraz egon behar duela.

Informazio instituzionala:

- Informazio orokorra.
- Ikastetxeak, Sailak, Titulazioak.



- Ikerkuntza.
- Bisitarietzako informazioa.
- Akademia Antolakuntza.
- Unibertsitate-Enpresa.
- Ikasleentzako informazioa.
- Akademia kudeaketa.
- Nazioarteko Harremanak.
- Hizkuntza Politika.
- Ekonomia Gaiak eta Gerentzia.
- Kultura Hedakuntza.
- Kirolak.

#### Campusetako informazioa:

- Arabako campusa.
- Gipuzkoako Campusa.
- Bizkaiko Campusa.

#### Zerbitzuak:

- Argitalpenak.
- Telefono eta posta.
- Informatikoak.
- Biblioteka.
- .....

Arau honetatik kanpo instituzionala ez den informazioa geratuko da, hau da, langile batek bere jarduera propioari buruz zabaltzen duena. Hala ere, informazioa sortzen duenari, behar duen laguntza eskainiko zaio euskaraz eman nahi izango balu.

### 7.3.2. Liburutegiaren Katalogoa.

Web orrian eskaintzen diren zerbitzuen artean garrantzi berezia du Liburutegiari dagokiona. Euskal Herriko Unibertsitateko Liburutegia Euskal Herrian dagoen liburutegirik garrantzitsuena da, bai tamaina eta bai gaien anizkoitzasunaren aldetik. Hori dela eta, eskaintzen duen zerbitzua ez da Unibertsitate barruko eremuetara mugatzen. Izan ere, erabiltzaile gehienak Unibertsitateko kideak izan arren, erabiltzaile asko Unibertsitateko kideak ez diren herritar eta erakundeak dira. Hori horrela izanik, berezia eta zabala da Euskal Herriko Unibertsitateko Liburutegiak zientzia, teknika, jakintza eta, oro har, kulturaren arloan duen eragina. Beraz, interes berezia du eremu honetan euskararen normalizazioaren alde egin daitekeena. Ildo horretatik, Liburutegiko Katalogoa da zerbitzu honen tresnarik garrantzizkoena, horrek ematen baitu bestelako zerbitzu guztietara iristeko giltza.

Unibertsitateko beste edozein eremu bezala, Liburutegiko Katalogoak elebiduna izan behar du, era berean nazioarteko bibliotekonomia arauak betetzen direlarik. II Plangintza honen indarraldiaren barruan, Bibliotekako Katalogo elebiduna izateko lanei ekingo zaie. Horretarako, Liburutegiko Zuzendaritzak eta Euskara Errektoreordetzak egoki deritzoten prozedura adostuko dute.





## *8. Plangintzaren Ezarpen Planak eta Ebaluazioa.*



## 8.1. Plangintzaren Ezarpen Planak.

Atal honekin aurrera egin baino lehen, Plangintzaren indarraldia 5 urtekoa izango dela adierazi behar da. Beraz, finkaturiko helburuak datozen bost urteotan bete beharko dira. Horren arabera, 1999/2000 ikasturtea izango da plangintzaren lehenengoa eta 2004/2005, azkena. Hala ere, administrazio eta zerbitzuetako langileei dagokien plangintza eta, batez ere, derrigortasun daten ezarpenari dagokien epea, 2002 urtean amaituko da; beraz, 1999 eta 2002 urteen arteko tartea izango da administrazio eta zerbitzuetako alorrari dagokion plangintzaren indarraldia. Seguraski, 2002. urtean hizkuntza plangintzaren osagai hori berriro arautuko da Dekretu baten bidez.

Plangintza honetan ezarri diren helburuak orokorrak dira akademia alorrari dagokionez. Horrela, Ikastetxe bakoitzerako helburuak kreditu kopurutan finkatu dira, euskaraz eskainiko diren irakasgaiak zeintzuk izango diren zehaztu gabe. Izan ere, titulazio bakoitzeko irakats eskaintzari dagozkion zehaztapenen finkaketa ezin daiteke egin hau bezalako Plangintza orokor batean. Ikastetxeei dagokie ardura hori. Horretarako arrazoiak argiak dira: Batetik, hau bezalako plangintza bat egin ahal izateko ezinbestekoa da ahalik eta informazio zehatzena eta fidagarriena izatea. Bestetik, ikastetxe bakoitzaren edozein irakaskuntza egitasmok ikastetxearen ardurapean egon behar du. Beraz, Plangintza honetan ezarri diren helburuak zehazteko, Ikastetxe bakoitzak prestatu beharko du bere Ezarpen Plana.

Plan horrek hurrengo osagaiok izan behar ditu:

- Hemen ezarri diren helburu orokorren zehaztapena, hots, euskaraz eskainiko diren irakasgaien zerrenda.
- Egutegi bat, non ikasturte bakoitzean egingo den euskarazko irakats eskaintza zehaztuko baita. Urte bakoitzerako helburuek orekatuak izan beharko dute.
- Beharrezkoak izango diren irakasle lanpostu elebidunen aurreikuspen bat, bakoitzari egokituko zaizkion irakats jarduerak zehaztuz. Hala ere, aurreikuspen honek ez du bermatuko lanpostuaren sorrera. Lanpostuaren sorrerari dagokion erabakia, Gobernu Batzarrarena da, ohikoa den prozedurari jarraituz.
- Testu liburuen beharrei dagokien txostena, gai hau aztertu den atalean adierazi diren kontuak landuz. Honetan, balizko egutegi bat proposatuko da.
- Irakats eskaintzari dagozkion zehaztasunak finkatzeko, ezinbestekoa izango da Plangintza honetan ezarri diren maila dauden daudenean eustea. Hala ere, maila horiek erreferentziak izango direla eta ez mugak, aintzat hartu behar da. Izan ere,

helburuak finkatu diren modua dela eta, hautazkoen eskaintza hemen aurreikusi dena baino zabalagoa izatea suerta daiteke.

- Ikastetxearen ustetan interesgarria izan daitekeen beste edozein kontu.

Ikastetxearen Ezarpen Plana Ikastetxeko Batzarrak onartu behar du Gobernu Batzarrak II. Plangintza hau onartu eta lau hilabete iragan baino lehenago. Geroago, Euskara Errektoreordeak ebaluatu beharko du Unibertsitateko Plangintzarekiko egokitasuna. Egokia dela ondorioztatzen bada, II. Plangintza honen eranskin bihurtuko da, Errektoreordearen erabaki baten bitartez. Bestelako kasuetan, Euskara Batzordeari entzungo zaio Ikastetxeari itzuli aurretik, berregituratua izan dadin.

## ***8.2. Plangintzaren Ebaluazioa***

Edozein plangintza prestatzerakoan, plangintzaren emaitzen ebaluazio etengabea aurreikusi behar da. Horrela, helburuen betetze maila ebaluatu ahal izango da eta aurreikuspenetatik aldentzen bada, beharrezkoak izango diren neurriak garaiz hartu ere.

II. Plangintza honen emaitzen ebaluazioa urtero egingo da. Horretarako, batzorde bat eratuko da, -Euskararen Normalizaziorako Plangintzaren Ebaluazio BatzordeaÓ hain zuzen ere. Batzorde honen burua Euskara errektoreordea izango da eta, berarekin batera, hiru Campusetako euskara arduradunek osatuko dute.

Euskara Errektoreordeak urteroko ebaluazioaren emaitzak aurkeztuko dizkie Euskara Batzordeari eta Gobernu Batzarrari. Ebaluazioaren emaitzen arabera, ezarritako helburuak betetzen ez direla ondorioztatzen denean, azterketa bat egingo da helburuen betegarritasuna neurtzeko. Hori egin eta gero, helburuak aldatzeko aukera egongo da edo, bestela, neurri bereziak proposatuko dira helburu berberak bete ahal izateko. Bi kasuetan, Euskara Batzordeak kontua aztertu ondoren, Gobernu Batzarrak hartuko ditu puntu honi dagozkion erabakiak.



Edonola, hurrengo adierazleak erabiliko dira ebaluazioa burutzeko:

- **Irakats eskaintza**

1. Ikasketa guztietako euskarazko irakats eskaintzaren neurria eta aurreikuspenekiko erkaketa.

- **Irakasle elebidunen prestakuntza**

2. Irakaslegaien arloetan bete diren irakasle lanpostuen eta bekadunen kopuruak.

- **Euskarazko irakaskuntzarako laguntza**

3. Euskaraz argitaratutako testu liburu eta bestelako ikasmaterialen kopuruak.

4. Argitaratutako hitz zerrenda berezien kopurua.

- **Administrazioa eta zerbitzuak**

5. Euskara gaitasunaren mailen bilakaera eta hizkuntza eskakizunen egiaztapenen kopurua.

6. Elebidunen izendatuko diren atalen euskararen erabileraren neurketa.





## *9. Plangintzaren Dirulaguntza.*



Begibistakoa da II. Plangintza honen helburuak bete ahal izateko, dirulaguntza berezia behar izango dela, batez ere ekintza berriei aurre egin ahal izateko eta irakats eskaintza gehitzeko beharrezkoak izango diren irakasle lanpostu berriak sortu ahal izateko.

Unibertsitatea Antolatzeko Legeak, bere 9. artikuluan azaldu ditu zeintzuk diren Unibertsitate Planaren programak eta, bere laugarren puntuan, honako hau esan du:

*-Berariazko euskalduntze-programak, Unibertsitateak arlo horretan dituen planak bultzatzeko.*

Bestalde, 31. artikulua leheneko puntuan hauxe dago:

*-Programa-kontratuek Unibertsitate-Planean jasotako programak eta ekintzak finantzatzeko.*

Beraz, aurreko bi aipu horiek argi eta garbi adierazten dute II. Plangintza honek ekarriko dituen kostu berezietan aurre egiteko, programa kontratuaren tresna erabili behar dela.

Aurreko ataletan hainbat ekintza proposatu dira. Bestalde, irakasle lanpostu berrien beharrei dagozkien aurreikuspenak egin dira era berean. Beraz, ondoren azalduko dira II. Plangintza honetarako dirulaguntzak zehazteko aurkeztuko den programa kontratuaren egitura eta edukin nagusiak. Atal honetan aurkeztutakoa, beharrezkoak izan daitezkeen ekonomia baliabideen aurreikuspenei dagokie eta beraz, honek ez ditu mugatzen dokumentu honetan aurkeztu diren helburuak.

## ***9.1. Programa kontratuaren helburuak.***

### **Helburu nagusia:**

EHUko euskararen erabilera normalizatzeko plangintzaren garapena.

### **Helburuak:**

- Irakats eskaintzari dagokionez**

1. 3.1.3. atalean zehazturiko irakats eskaintza plangintzaren indarraldiaren amaitu baino lehen euskaraz egitea.

- Irakasle elebidunen prestakuntzari dagokionez**

2. Irakasle lanpostuak bete ahal izateko irakaslegaien defizita dagoen arloetarako, 10 doktoregai erdaldunek euskaraz irakatsi ahal izateko gaikuntza programa ezartzea.
3. Irakaslegaien defizitak dituzten arlo horietarako, 10 tituludun euskaldunek doktore tesiak burutzeko programa berezi ezartzea.

- **Euskarazko irakaskuntza laguntzeko bideei dagokienez**

4. Euskaraz irakasten duten irakasleek behar duten hizkuntza aholkularitza eman ahal izateko, Euskara Institutua behar diren giza eta bestelako baliabideak hornitzea.
5. Sail desberdinetako irakasleak Euskara Institutuari zatiko arduraldiaz atxekitzea.
6. Euskarazko testu liburu eta bestelako ikasmaterialen ekoizpena gehitzea eta hitz zerrenda berezien argitalpenekin hastea.

- **Administrazio eta zerbitzuei dagokienez**

7. Elebidun izendatuko diren administrazio ataletarako euskararen erabilera planak ezartzea eta abian jartzea.
8. Administrazio eta zerbitzuetako pertsonalaren euskalduntzea eta euskaraz lan egiteko trebatzea.

## ***9.2. Indarraldia.***

### ***II. Plangintzarena:***

II. Plangintza indarrean egongo da 1999/2000 eta 2003/2004 ikasturteen artean.

### ***Programa kontratuaren indarraldia:***

Programa kontratua 1999, 2000, 2001 eta 2002 urteetan egongo da indarrean. Beraz, programak dirulaguntza emango du II. Plangintzaren lehen lau urteetan egongo diren beharretarako. Azken ikasturteari dagozkionetarako, beste programa kontratu batek emango du dirulaguntza.

### 9.3. Beharrak.

- **Irakats eskaintza gehitzeko**

1. Irakasle elebidunen 230 lanpostu berri.
2. Hizkuntza birzinklaketarako askapenek ekarriko dituzten ordezkapenak egiteko, 20 lanposturen behin-behineko horniketa.

- **Irakaslegai elebidunen prestakuntzarako**

3. EHUK doktore tesia prestatzeko ematen dituenen pareko 20 dirulaguntza berezi.

- **Euskarazko irakaskuntzari laguntza emateko**

4. Goi teknikari baten eta administrazio laguntzaile baten lanpostuak Euskara Instituturako.
5. Euskara Institutuari irakasleak zatiko arduraldiaz atxikitze beharrezkoak izango diren ordezkapenak betetzeko, lau irakasle lanposturen behin-behineko horniketa.

- **Administrazio eta zerbitzuetako pertsonala euskalduntzeko**

6. Euskararen erabileraren planak abian jartzeko behar izango diren baliabideak.
7. Egungo askapenez gain, beste bost askapenek ekarriko dituzten ordezkapenei dagozkien behin-behineko lanpostuak.
8. Bi orduko askapenek atal handietan sortzen dituzten lan beharrei aurre egiteko beharko diren hiru behin-behineko lanpostuak.

### 9.4. Egutegia.

| Beharrak                   | 1999   | 2000   | 2001    | 2002    | 2003    |
|----------------------------|--------|--------|---------|---------|---------|
| Irakasle berriak           | 50     | 50     | 45      | 45      | 40      |
| Irakasleen ordezkapenak    | 8      | 6      | 4       | 2       | 0       |
| Prestakuntza dirulaguntzak | 8 (+0) | 6 (+8) | 4 (+14) | 2 (+18) | 0 (+12) |
| Euskara Institutua         | 2      | 0      | 0       | 0       | 0       |
| E.I. Atxikipenak           | 2      | 2 (+2) | 1 (+4)  | 0 (+5)  | 0 (+5)  |
| AZPren ordezkapenak        | 8      | 8      | 8       | 5       | 3       |
| Erabilera                  |        |        |         |         |         |



|        |      |      |      |      |      |
|--------|------|------|------|------|------|
| planak | n.g. | n.g. | n.g. | n.g. | n.g. |
|--------|------|------|------|------|------|

n.g.: neurtu gabe. Hizki lodiz adierazi dira programa kontratuari dagozkion urteak.